



Manuel LASARTE

Heriotza-oharra → 30

Landareak

Gehigarri berezia → 9-11

ETXALAR → 15

Parisko Gazteria dantza taldearen ikuskizuna

BAZTAN → 35

Aroztegiko proiektuaren tramitazioa eztabaidan

SARA → 41

Usopop festivalaren 2. edizioa larunbatean

KIROLA → 44

Amaiur Sokatira Taldea Munduko Txapelketan



AMAGINTZA → Bular emate eta amatasunaren aldeko laguntza taldea

«Ama bakoitzak bere haurrak behar duen esnea sortzen du»

Elizondon urte batzuk daramazkitez lanean eta orain Lesakan hasiak dira elkartzen hilabetero

→ 4-5

Saioa IRAOLA | Bilgune Feminista

«Feminismotik ezin dugu beste aldera begiratu, erantzun sendo bat emateko unea da»

Martxoaren 2tik 4ra
Euskal Herriko
Emakume Abertzaleen
Topaketa Feministak
eginen dira Leitzan.

→ 3



KIROLA → 43

Nafarroako mendi automobilismo txapelketa irabazi du Imanol Oskoz elizondarrak

Junior eta absolutuen kategorietan txapelkun izan da 24 urteko gaztea.



SENERE → 40

Frantziako Poliziak Nahia eta Odre Lacroix atxilotu zituen joan den astean. Odre libre utzi eta Nahia Parisera eraman zuten.

WWW.MUEBLESORDOKI.COM

Plaza Zakuena, 27 Erretokale, Oizango Industriparke, 48300 LEZAMA
948 657 780 telefonoa denbete atzetan
info@mueblesordoki.com herbiak elektronikak

ZERBITZUAK PRODUKTIO PERTSONALIZATUA ISASARRIAK ALTZARIEN MONTAJA DEKORATZAILA

EGONGELAK
LOGELAK
GAZTEAK
ARMAIRUAK
ILUMINAZIOA

**ERAKUSKETA ALDAKETA
DELA ETA LIKIDAZIOA**

BERA AGENDA MARTXOA Ekizidien gainera informazio gehiago:
012 telefonoan www.berakoudala.net

4 igandea
SALDO AZOKA • 10:00 - 20:00 • Kiroldegian
Antolatzailea: Larun-Haizpe elkarte
Laguntzaileak: Berako Udala - Garapen Batzordea

4 igandea
ZUHAITZAREN EGUNA
Landaketaren hasiera Lizunagan, 9:00etan
Ondotik, hamaiketakoa
OHARRA: bakoitzak bere erremintak eramanen ditu
Antolatzaileak: Ehiza eta Arrantza Elkarte
eta Berako Udala

11 igandea
FILMA: "Bertsolari" (Asier Altuna)
18:00 - Kultur Etxean
Sarrera: 3€
Antolatzailea: Bortzirietako Kontziliazio Ituna

18 igandea
HERRI KIROL SAIOA
11:00 - Kiroldegi aitxinean (Eztegaro frontoian eguraldi txurra eginez gero).
Alebinak, infantilak, kadeteak

24 larunbata
ANTZERKIA: "Prodigiousa remendona" (Irurtzungo Antzerki Tailerra)
19:30 - Kultur Etxean - Sarrera: 3€

28 asteazkena
UDABERRIKO KONTZERTUA
17:30 - Berako Kultur Etxean
Antolatzailea: Idoro Fagoga Udal Musika Eskola

Euskal Herriko Bilgune Feministaren 10. urteurrena gogoan, Emakume Abertzaleon V. Topaketa Feministak Leitzan egingen dira, martxoaren 2tik 4ra. Euskal Herriko hainbat txokotako

400 emakume espero dira, eta parte hartzeko gonbitea luzatu dute, denak ongietorriak direla esanez: amonak, amak, gazteak, helduak, zaintzaileak, baserritarrak, etxeko langileak...

«Gure eskubideen aldeko borrokan bakarrik ez gaudela sentitzeko eta bakoitzaren hitza garrantzitsua dela» oroitarazi dute. Datu gehiago: 2012topaketafeministak.wordpress.com.

Saioa IRAOLA URKIOLA | Bilgune Feministako kide leitzarra

«Emakumeon eskubideen aitortza lortzeko une garrantzitsuan gaude»

G. PIKABEA | LEITZA

2002an sortu zen Euskal Herriko Bilgune Feminista. Nolako balantzea egingen zenuke?

Oso balantze positiboa. Emakumeen egoera ez da asko aldatu eta zenbait eremutan atzera egin dugu; baina borroka feminista asko indartu denaren sentazioa daukagu. Bilgune Feminista gisa asko hazi gara eta horrek aurrera jarraitzeko indar asko ematen digu, gure proiektuak geroz eta babes gehiago daukala ikusteak. Mugimendu indartsua behar dugu zapalkuntza patriarkalarekin bukatzeko eta bide horretan gaude.

Zer aldatu da hamar urte hauetan?

Zoritxarez, hasierako helburu berak ditugu, oraindik ez baitugu nahi dugun herri feminista eraiki. Baina aurrera begira eta egungo testuingurua oinarri hartuta, erronka handi eta interesgarriak ditugu. Euskal Herriko egoerak aukera berriak irekitzen dizkigu herritarroi orokorrean eta zehazki emakumei, prozesu demokratiko bat abiatzeko gure bizi baldintza eta gure etorkizunean hobekuntzak ekarriko baititu.

Zein da orain egoera?

Krisi sistemikoak emakumeak egoera erabat prekarioan kokatzen gaitu eta azken urteetan lortutako hainbat eskubide eta



UTZITAKO ARGAZKIA

Saioa Iraola Urkiola, Emakume Abertzaleon V. Topaketa Feministak-eko kartela eskuetan.

aurrerapausu arriskuan daude. Prekarietatea da gure bizitza ezaugarritzeko terminoa. Baina Euskal Herrian bizi dugun egoera soziopolitiko honek ateak irekitzen dizkio borroka feministari. Gure eskubideen aitortza lortzeko momentu garrantzitsuan gaude, eskubide horiek bermatzeko aukera ematen duelako. Eskubideen bermea errotik ematen den aldaketa sozial eta politikorekin lotzen dugu.

Aurrera begira, zein da Bilgune Feministaren helburu nagusia?

Gure jardunaren oinarria emakumeen eskubideen aldeko borroka izan da,

MOMENTU ERABAKIORRA

«Gernikako akordioaren izenpetze zabalak, Ezkerretik eraiki akordio estrategikoak eta Bilduren emaitza garrantzitsuak, Aieteko bake konferentziak, ETaren azken adierazpenak zein konponbidearen alde herritarren aldarrikapenak ate berriak ireki dizkio Euskal Herriko eta euskal herritarren etorkizunari. Horiek eta aldaketa sozial eta politikorako premiak une hau giltzari bilakatzen dute. Feminismotik ezin dugu beste aldera begiratu».

eta berau egoeraren araberako modu anitzetara egokitu izan dugu. Euskal herri feminista eraikitzea da gure helburu goren, baina horretarako, ezinbesteko pausuak eman behar dira: emakumeok subjektu politikotant bilakatu behar dugu. Honela soilik lortuko baitugu dagozkigun eskubideen bermea eta gure bizi baldintzak hobetzea.

Jarduera feministak emakume gazteengan eragin haundiagoa du...

Gure jarduneari hainbat emakume kolektibotara heldu gara baina bereziki emakume gazte eta ikasleak bilakatu dira eragile feminista garrantzitsu.

Beraz, garrantzitsua ikusten dugu bestelako emakume sektoreekin batzea eta euren aldarrikapenei tarte gehiago egitea: baserritarrei, zaintzaileei, etorkinei...

Hamaika egiteko ari gara lelopean egingen dira aurtengo topaketak...

Hamaika ikusteko jaio gara dio esaera zaharrak, baina guk hamaika egiteko ari garela diogu. Sare anitz eta era askotariako elikatzen jardun dugu hamar urteotan. Hamar urte eta hamaika esku, bihotz, irribarre eta malko. Hamar urte eta oraindik hamaika proiektu egiteko. Hamar urtez aritu gara, eta orain, hamaika egiteko ari gara.

Zein egoeratan ospatuko duzue urteurrena?

Momentu giltzarrian gaude. Zapalkuntzari aurre egiteko beharrez gain, aukera berriak ireki baitira Euskal Herrian. Aldaketa sozial eta politikorako aliantza berriak sortu dira eta zenbait eragile politikok hartutako erabakiek prozesu demokratiko bat abiatzeko baldintzak inoiz baino argiagoak jarri dituzte. Feminismotik ezin dugu beste aldera begiratu, erantzun sendo bat emateko unea da, feministen arteko aliantza, akordio eta lankidetzak inoiz baino garrantzi gehiago du.

Elkarrizketa osorik: www.ttipi.net-en.

GIZARTEA → EDOSKITZE TALDEAK LANEAN

Amaren bularra, haurraren janari

Lehenbiziko sei hilabetetan haur sortu berriei soilik amaren esnea ematea aholkatzen dute osasun erakundeek

«Amaren bularra, haurraren janari, aterpe samur hontan, lo hartu nahi dut nik». Honela bukatzen zen Xabier Lete zenak kantatzen zuen seaska kanta hunkigarria. Industrializazioaren eraginez, ordea, emakumea etxetik kanpo ere lanean hasi zenean aunitz jautsi zen bularra ematen zuten amen kopurua. 1980. hamarkadan izan omen zen kopururik baxuena, baina umearentzat ez ezik amarentzat ere osasungarriena dela kontuan izanik, gero eta gehiago dira seme-alaba jaiotze berriei «odol zuria» ematen dioten emakumeak.

Aitor AROTZENA | LESAKA

Amagintza izeneko elkarteak 1997an sortu zuten bere haurrei bularra ematen zieten zenbait amek. Orduan ikusi zuten zein ederra den bularra emateko laguntza eta babesa topatzea, informazio egoki baten bidez edo zailtasunak daudenean hitz goxo bat adituz. Oinarri horrekin sortu zen Amagintza.

Lesakako kasuan, Ainhoa Zaldua eta Amaia Lasherak bultzatzaileek aipatu digutenez, «ama izan eta seme-alabei bularra eman ondotik, inguruan informazio eskasia handia zegoela somatu genuen. Horregatik sortu genuen edoskitze taldea Lesakan». Hilabeteko

azken ortzegunean biltzen dira, 17:30etik 19:30era Lesakako Udalak Osasun Zentroaren ondoan duen egoitzan. Duela hilabete batzuk hasi ziren lanean, baina otsailaren 9an egin zuten jendaurreko aurkezpena.

Elizondoko Osasun Zentroan, lauzpabortz urte daramazkitez edoskitze tailerlean lanean, Izaskun Zubizarreta emagina eta Ana Fernandez pediatriako erizainaren gidaritzapean. Hauek ere hilabete ko azken ortzegunean biltzen dira, 11:30etik 13:30era.

Tailer hauetan hainbat ama edo ama beharrak elkartzen dira beraien esperientziak eta zalantzak azalduz. Hel-



UTZITAKO ARGAZKIA

Bularra emateari buruzko aholkuak ematen dituzte edoskitze taldeetan.

EDOSKITZEARI BURUZKO ZALANTZA ARRUNTAK

Titia ematean min hartzen da?

«**Titia ematean min hartzen da?**».

Titia emateak EZ du minik eman behar. Hori gertatzean ahal da zenbait arrazoiengatik, adibidez, haurraren postura ez egokiarengatik.

«**Ez dut esne nahikorik**». Arrazoi horrengatik emakume aunitzek uzten diote bular emateari. Amen %97ak bularra ematen ahal du laguntza eta informazioarekin. Umeak zenbat eta gehiago xurruptatu, orduan eta esne gehiago sortuko du amak.

«**Nere esneak ur gehiegi dauka**». Hasieran ateratzen den esnea ureztatua izaten da, baina grasa kopurua handitzen joatean da eta azkenean bortz aldiz gehiago dauka. Horregatik, ez dira bularra ematen pasatzen diren minutuak kontatu behar, hoberena bukaeran baitago.

«**Ez ditu hiru ordu aguantatzen**». la

ume bakar batek ere ez du aguantatzen. Bularra, erlojua ahaztuta eman behar da.

«**A zer gaua eman didan!**». Haur batzuk logale gutti izaten dute. Lasaitzeko hoberena bularra ematea da eta amaren deskantsua errazteko, titia ohatzean ematea aholkatzen du Amagintza Elkarteak.

«**Ez du pisu nahikorik hartzen**». Bularra ez duelako ongi hartzen izan daiteke. Laguntza talde batekin harremanean jartzea da onena.

«**Egun batzuk daramazki oso segidan edaten**». Seguruenik, hazteko krisi bat igarotzen ariko da haurra. Bularra gehiago estimulatu beharra dauka esne gehiago lortzeko. Eskatzen duen guztietan eman titia eta egun batzuk pasatzerakoan, haurra normaltasunera bueltatuko da.

Informazio +: www.amagintza.asociacionespamplona.es

HAURRARENDAKO ABANTAILAK

- Hobe eta errazago digeritzen da.
- Burmuinaren garapenerako kalitate hobeko grasak ditu.
- Burdina ia osorik xurgatzen da. Anemia guttiago.
- Adinaren arabera esnearen osaketa aldatuz doa.
- Laktosak kaltzioa xurgatzen laguntzen du eta errakitis-moaren kontra egiten du.
- Higienikoa da. Beti tenperatura egokian prest dago. Estirilizatua dago.
- Amak izan dituen eritasunen antigorputzak dauzka.

AMARENDAKO ABANTAILAK

- Erditzearen ondotik, odol ixuri ttikiagoa.
- Erditzetik lehenago errekuuperatzen da.
- Bular, umetoki eta obariatoko minbizia izateko arrisku ttikiagoa.
- Osteoporosia izateko arrisku ttikiagoa.
- Erditze ondoko depresioa ttikitzen du bularra emateak.
- Bularra ematen duen amak lehenago eta hobe daki umearen beharren berri: gose, tripako min edo maitasuna behar duelako negarrez ari den jakinen du.
- Diabetes eta bihotzeko eritasunetan arrisku ttikiagoa.

burua amei informazioa eskaintzea da, eta egorari bere kabuz aurre egiteko babesa eta ballabideak ematea. Bertzen esperientziak hagitz baliagarriak dira horretarako. Umeen loa, elikadura osagarria, koloakoak, edoskitzea eta lana, titia kentzea, aitaren papera, hartualdien erritmoa... hainbat dira edoskitze tailerrean ateratzen diren gaiak... Noski, umeak eta aitak ere ongi gertatzen dira. Emakumea haurdun dagoenean ere komeni da tailer hauetara joatea, zenbat eta informazio gehiago eduki orduan eta arazo guttiago sortzen baitira bularra ematerakoan.

Gaur egun, osasun erakundeek onartzen dute amaren esnea dela haurarentzako onena eta sei lehenbiziko hilabetetan huts-hutsik hartu beharko litzakeela. Beti ez da horrela izan ordea. Gaur egun ere, emakumearen askatasuna edo estetika arrazoiengatik hobe dela bularra ez ematea dioenik ere bada. «Hori dioena oker dago –aipatu di-

ESTETIKA

«Bularra ematen duen amak bere figura lehenago berreskuratzen du ematen ez duenak baino, kaloria gehiago erretzen dituelako».

Ainhoa ZALDUA
Amagintza Elkartea

gu Ainhoa Zalduak-Haurdunaldian emakumearen bularrak aldatzen dira, baina umeari titia eman ez dioten amei ere berdin-berdin hondatzen zaizkie. Titia emateagatik ez dira gehiago hondatzen. Bularra ematen duen amak, orokorrean, bere figura lehenago berreskuratzen du ematen ez duenak baino, kaloria gehiago erretzen dituelako. Egia da emakume bat askeago izan daitekeela biberioa emanez, baina nere ustez ama izatea da gertatzen ahal zaigun gauzarik zoragarriena eta 0-6 urte bitartean dugu loturarik handiena seme-alabekin. Gero, beraiek izanen dira independizatzen joanen direnak».

AINHOA ZALDUA ETA AMAIA LASHERAS, AMAGINTZA ELKARTEKOAK

«Amaren esnea janari ona izateaz gain, sendagai ona ere bada»

Zer garrantzi du bular emateak haur eta amaren garapenean?

OME eta UNICEF erakundeek haurren sei lehenbiziko hilabetetan soilik amaren esnea ematea aholkatzen dute (ez urik, ezta zumorik ere...) eta gero, amaren esnearekin segitzea baina osagarriak sartuz bi urteak bete arte edo gehiago. Amaren esnea sustantzia bizia da, odolak berak haina zelula ditu. India bezalako aitzinako kulturetan 'odol zuria' deitzen zaio. Izan ere, zelula hauek parasitoak, bakteriak eta onddoak desegiten dituzte eta erantzun immunologikoa erregulatzen laguntzen dute. Germenak guttiago eta abiadura ttikiagoan ugaltzen dira amaren esnean. Amaren esnea elikagai ona izateaz gain, sendagai ona ere bada.

Egia al da haurrari hobekien egokitzen den esnea dela amarena?

Bai. Ama bakoitzak bere haurrak behar duen esnea produzitzen du, haurraren adinaren arabera. Ez da berdina ume goiztiarra izan duen amak edo 9 hilabeteko haurdunaldia izan duen amak sortzen duten esnea. Amaren esnea haurarentzako elikagairik onena da, behiaren esnea aretxearendako onena den bezalaxe. **Zein da bularra ez emateko arrazoi nagusia: lana, esnerik ez izatea, estetiko...?**

Arazorik handiena informazio eta babes falta da. Mito eta aurreiritzi aunitz daude edoskitzeari buruz. Ama berriz ere lanean hasterakoan ere arazo aunitz sortzen dira. Momentu horretan informazioa behar du emakumeak, bularra ematea eta lana nola uztartu jakiteko. Horretan ere laguntzen dugu tailerrean. Informazioarekin errazagoa da bularra ematea eta

lana uztartzea, eta emakume aunitzek uste baino errazagoa egin zaie la erraten digute. Bularra ez emateko berte arrazoia esne nahikorik ez duzula pentsatzea da. Umeak zenbat eta gehiago zurrupatu, orduan eta esne gehiago sortzen da. Umeak batzuetan ez du ongi hartzen titia eta orduan ez da esne aski egiten. Arazo hori moldatu eta egun guttira esne produkzioa handitzen da.

Zure umeari bularra ezin emateak ere arazoak sortzen ahal ditu. Nola egiten ahal zaio aurre?

Ama gehienek bularra eman nahi izaten dute. Aunitzetan informazio faltagatik uzten da eta orduan emakumea errudun sentitzen da, baina ez da horrela sentitu beharrik, ama ez da errudun. Momentu horretan ahal zuen hobekien jokatu du. Kasu hauetan, amak berak biberioa ematea izaten da onena, haurraren lotura hori sortzeko. Baina laguntza taldetan bularrarekin segitu nahi duten emakumea laguntzen dugu eta zailtasunak zituzten amek lortu dute.

Gaur egun amak bularra ematea bultzatzen da, baina izan da hain ongi ikusia ez zegoen garaia ere...

Halaxe da. Guretako aunitz ez digute bularra eman, haurren elikadurarako enpresak horretan saiatu zirelako. Esne artifizialak atera zirenean, enpresek esne horiek hobeak zirela erranez informazio okerra atera zuten. Industrializazioarekin, emakumeak kanpoan lanean hasi zirenean etxea utzi behar izan zuten eta hor burubelarrari sartu ziren formulak esne-marka komertzialak, osasun arloko zenbait profesionalen laguntzarekin. Zorionez, berriz ere, amaren esnera bueltatzen ari gara.

Ainhoa Zaldua eta Amaia Lasheras





Nire txanda
Luis GARDE

Txotxongiloak

hauteri sasoiari gaudelako ote da? Contador txirrindulariari ezarritako zigorraren harian, Espainiako politikari, kazetari eta iritzi-emaile askok serio-serio hartu dute Frantziako telebista pribatu bateko programa batean zenbait txotxongilok egindako txantxa. Horretaz gain, hiru ministroen gaitzespenak, kexa diplomatiko bat gobernu frantzesari... Duela urte batzuk, Virenque txirrindulari frantsesa dopin kontuarengatik zigortu zutenean, programan bertan agertu zen xiringaz josia. Sarkozy-z edo Le Pen- ez txirigota gogorrek egin ohi dituzte. Baina oraingoan espainiarren ohorearekin sartu dira, eta horrek ez du barkamenik: a, frantxute horiek, beti espainiarrei izorratu nahian. Inbidia nazionalaren ondorioak! Eztabaidagarri izan daiteke txantxaren baten gustu ona edo txarra, noski. Baina, dopinari dagokionez, hobe lukete politikari espainiarrek, biktimismoa sustatu beharrean, benetako garbiketa egitea kirol profesionalaren munduan. Italian eta Frantziara aspaldian egin zuten bezala.

«Hobe lukete garbiketa egitea kirol profesionallean»

Ezpala

Aitor AROTZENA

Haizeak nondik jo

Haizeaz kexu izaten da ezkorra. Haizea noiz aldatu zain egoten da baikorra. Errealistak belak prestatzen ditu. William A. Wardek errana omen. Baina arazoa dator haizea nondik jotzen digun ez dakigunean. Edo haize-oihalak hedatu eta amildegira bultzatzen gaituela ikusten dugunean. Arraunean hastea gelditzen zaigu orduan. Baina nora? Ezkorra naiz? Baikorra? Realekoa?

Nabarmentzekoak



Manuel LASARTE
Bertsolari handia hil da

Leitzako Franki base-
rrian jaio zen 1927an eta
umetan Gipuzkora joan
zen bizitzera. 40 urte in-
guru eman zituen plazaz
plaza eta liburu batzuk
ere idatzi zituen. Otsai-
laren 12an hil zen.



Patziku PERURENA
Idazlea

*Unaia galdu eta Arzaia
ugaldu (1780-1810)* egi-
tasmoarengatik Manuel
Larramendi Kultur Baz-
kunak antolatutako lker-
keta Saria jaso du. 6.000
euro eskuratuko ditu
lana gauzatzeko.



Jose Luis SUNSUNDEGI
Beti Gazteko presidente

Lesakako elkarte han-
dieneko presidente au-
keratu dute azken baz-
tarrean. 16 urtez kargu-
an izan den Salvador
Yanciren lekua hartuko
du batzordean urteak
dituen Sunsundegi.

Atzera begira → 2000.02.24 / TTIPI-TTAPA 272. zbk



7.000 izokin kume bota zituzten Bidasorarat

«Urtero 52.000 izokin tiki botatzen ditugu Bidasorarat». Halaxe zioen Gabriel Salaberri, Oronoz arrain haztegiko langileak. «7.000 arrainkume ingururi mikrotxipa jarri eta Enderlatsan bota genituen otsailaren 24an. Hilabete baten buruan itsasoan dira denak, hoiek eta baita ekainean bota genituenak ere», aipatu zigu. Gabrielelek erran zigunez arrainen neurriarekin zituzten gorabeherarik handienak, garai batean baino puska tikiagoak heldu baitziren izokinak. Gaur egungo izokinek, nonbait, ez omen dute garai batekoek egiten zuten ibilbide luzerik egiten, hori ere adierazio zion TTIPI-TTAPAri Salaberrik.



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Anduettzeta, 12 • 31760 ETXALAR

Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.net

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Publizitatea** Usoa Vicente **Berriemaileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Konbi Klaber, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Alzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Gofñi, Joana Guerendiain, Martin Bertiz, Nerea Telletxea, Mattin Larraalde, Juan Mari Barriola.

Fundazioaren Presidentea Pello Apeztebea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leizta, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Bortziritetako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2012ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria38€	Europa56€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka32€
Ipar Euskal Herria56€	Amerika eta Australia124€	Leizta16€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



Euskarabideak
diruz lagundutako aldizkaria



Kolaborazioak

Hau lana!

Mikel TABERNA IRAZOKI «Kapi»

S arkozy jaunarekin eta Merkel andrearekin solas egin ondotik, Rajoy jauna telebistan agertu zaigu. Bildots larrua erauntzi, eta otso buztana agerian erakutsi du, lotsarik gabe. Erran du akabo dela inauteria eta orain garizuma heldu zaigula. Ezin izanen dugula segitu, orain arte bezala, nahi genuen aldiro haragia jaten eta larrua jotzen. Barua egin beharko dugula bolada batean. Horretaz gainera, lanik ez dagoela denontzat eta lanpostua duena ere ezin dela kexatu, nahiz eta ordu gehiago egin eta guttiago kobratu. Konformatu beharko dugula.

Hori aditu eta gero, zalaparta sortu da. Ez da erraxa izaten denak akort jartzea. Batzuk patrioaren-gana joan dira, “pelegrino, pelegrino...” xuabexuabe kantari, “una limosnita por amor de Dios”, baina errebeldeenak oihuka eta desafioka hasi dira, “Zingar-arraultze! Zingar-arraultze! Zertako nahi duk hik hainbertze!”.

Nolanahi ere, hondarreko, denak elkartu gara, eta bildu ditugun puska guziekin berendu eder bat egin dugu. Gustura egon gara, agintariek eman duten ordenari kasurik egin gabe. Jan eta edan, irrintzi eta dantza. “Hau sasoi! Eta lanikan ez!” erran dit adiskide batek begi-keinua eginda.

Serio pentsatzen jarrita, Gobernuak “ni hemen nagusi” hartu dituen

neurriekin, ez dakit lanik sortuko den, baina beharbada polizia ez dute falta izanen! Dena protestarik egin gabe onartzeko, jendeak kontestarik gabeko galderra gehiegi ditu: nondik sortu da krisia, nork, zergatik, nola, zertarako ...?

Iduri du segurtasun guziak kendu nahi dizkiotela langileari. Norbait menean edukitzeko, beldurra sartzea aspaldiko politika zaharra da. Eta bakoitzak bila dezala bere konponbide partikularra. Bakarka nahi gaituzte, horrela ahulagoak garelako»

«Iduri du segurtasun guziak kendu nahi dizkiotela langileari. Norbait menean edukitzeko, beldurra sartzea aspaldiko politika zaharra da. Eta bakoitzak bila dezala bere konponbide partikularra. Bakarka nahi gaituzte, horrela ahulagoak garelako»

Gure aitzinekoek ezagutu zuten kanpora joan beharra lan bila, familiatik eta herritik urrun, han zer ikusiko zuten ongi jakin gabe: Uruguai, Argentina, Estatu Batuak... Baina, orduan bezala, orain ere jendeak hemen bizi nahi du eta bertan lan egin, eta kondizio onetan. Sobera eskatzea ote da?

Elurra

Joseba URROTZ

Elurraren alde arituko naiz, aunitzentzat mardarikazua bada ere. Eta horixe da harrizten nauen kontua: nola gorrotatu elurra, edo beldurtu bere agerrerarekin?

Oparia da. Lurra berdindu eta estaltzen duen zapi xuria, soinuak leundu eta bakea ekartzen duen kotoia.

Xuria, kolore guzien batuketa, garbitasunaren, batasunaren, inoxentziaren, errugabetasunaren, perfektzioaren... ikurra. Nola gorrota dezakegu?

Ikusi al duzue elur malutaren forma? Guk deus egin gabe osatzen den forma zoragarria.

«Elur urte, gari urte», «Elur-melur ez nauk hire beldur, badiat etxean arto eta egur»

Zeren beldur gara ba? Badugu inoiz baino erosotasun eta biltegi gehiago etxeetan, dendak ere nonnahi. Apuru orduan, traktoreak, makinak, baita helikopteroak ere... Behar bada ez dugu elurraren beharrik garirik ereitten ez dugulako? Hara nun agertzen

diren gure ahuleziak, pentsua edo ogi irina urrutitik ekarri behar eta elurrak ez badigu uzten.

Bai, hemengo nekazariarentzat saltsa izan daiteke esneketaria ailegatu ezin bada eta milaka esne litro pilatzen badira behitegian. Baina norena da errua? Elurrarena? edo gaur egungo nekazaritza intentsibo eroarena? Lehen, elurrarako prest egoten zen gizakia, udaberritik udazkenera etxea ongi hornitu, eta ezin bada kanpora atera, haziendak bazkatu eta goxo-goxo sutondoan egon. Barrenera begiratu alegia. Hara! Gaur egun ez dugu astirik (edo ez dugu nahi) barrenera begiratzeko...

Guda elurraren kontra! Alerta diote telebistan, eta guk errepikatzen dugu loroak bezala, alerta! Elurra eta hotza dator! Inoiz gertatu ez balitz bezala. Orduan kamioiak agertzen dire, aintzinetik pala eta atzetik gatza dariotela. Harat eta honat, gure autoen gurpilak lasai ibili daitezen, errepide zola arramaskatu eta gazitzen, elur madarikatua kentzen! Halere, ez dittut erabat sinesten kontrakoekin solasak. Umetan denak (edo gehienak) pozten ginen elurrarekin, zakurrak ere, guk ditugun kezkarik ez dutenak, jostatu egiten dute.

Gizonago azaldu nahi al dugu elurrari uko eginez? Eman dezaiogun toki pixka bat barreanean dugun ume horri ere!

Bertzela, gertatzen ari den bezala, elurra gorrotatzen badugu, ez da guregana etorriko, gure lurra eta begiak goxatzera.

«Guda elurraren kontra! Alerta diote telebistan eta guk errepikatzen dugu loroak bezala, alerta! Elurra eta hotza dator! Inoiz gertatu izan ez balitz bezala»

Irakurleak mintzo

Nafar Mendi-Simplyrekiko Arraiozko herriaren haserrea

Arraiozko Herria

Duela urte batzuk, orain Nafar Mendi-Simply deitzen diogun Hipermerkatua eraikitzeko lehenbiziko pausuak ematen hasi zirenean, Elorga familiari, eta konkretuki Pier Elorgari, Arraiozko herritarrek jakinarazi zioten uraz justu zebiltzala eta kezka handia zutela herrian honelako denda handi bategen duen ur kontsumoak ekarriko zuen larritasun eta eskasiaz. Pier Elorgak trankil egoteko erran zuen, beraiek hornituko zutela urez Arraiozko depositua. Honetaz gain, eraikinaren inguruko belai eta lorategiak zaindu, garbitasun industrialak egin, hipermerkatuko eremuan lurpeko ur bonbaz hornitu etab... eginen zituela erran zuen.

Gaurko egunean hau dena gezurra bertzerik ez da izan. Ez du agindutako bat bera ere bete.

Ur depositua hornitzeko konpromisoan bigarren saiakera bat egin zen, Agerre baserri ondoan, lurpean, ura aurkitu eta ur bonba bat jarri zuten herritarren laguntza izan zutelarik.

Lan hauek ordea ez ziren akabatzerira iritsi. Ura depositura bideratu gabe, elektrizitatez hor-

nituz gabe, automatizazioarako aparatua jarri gabe, inongo fundamenturik ezta interesik erakutsi gabe, lanak alde batera utzi zituen.

Arraiozko herritarrek auzolanez bidez elektrizitatea bideratzeko beharrezkoak diren lurpeko tuboak jarri eta behar ziren arketak egin zituen, lanak aintzineratu eta mateko helburu bakarrekin. Arraiozko alkatetako Nafar Mendi-Simplyko nagusiarekin bildu zen. Hipermerkatuak enpresa baten 9.000 euroko aurrekontua zuen. Gastu honi aurre egiteko inolako interesik ez zegoela ohartuta, alkatetako auzolan bidez obra osoa eginen ziola eskaini zion, eskaera bakar batekin, obrako materialen gastatzen zen guztia, 4.500 euro hain xuxen ere, bere kontua izanen zela. Honi ere ezezik borobila eman zion.

Ez da lehenbiziko aldian bere hitza betetzen ez duena. Arraiozko biztanle batzuei hitza eman zien Naztako bidean errespetatua izanen zela. Denei, baina bereziki bide honen erabiltzaileei, ez zien inongo kasurik egin.

Egoera larri hau salatzerako behartuak gauden. Pier Elorgaren axolagabekeriaren ondorioz, behin baino gehiagotan Arraiozko Urrutia auzoa, goiko auzoa, urik gabe egon da hipermerkatuaren momentuko ur kontsumi izugarrien ondorioz eta erantzule bakar baten errua izan da, Pier Elorga, Nafar Mendi-Simplyko jabea.



Bota bertsoa

Josune MARZOL (Leitzako bertso eskola) • Doinua: Habanera

Emakume Abertzaleen Topaketak Leitzan

Bilgune Feministaren hamargarren urteurrena, emanak dauden pausoak ematen dio izena. Denak saiatu ezean ez dugu lortuko dena, indarrak lotu ditzagun eta bultzatu sormena. Zu ere izango zara hemen garrantzitsuenak, ta erakutsi ezazu benetan zu zeu zarena. Aportazio tikiak, ideiarik haundiena, "Hamaika itteko ari gara" Aurtengo lelo ozena.

Fabriketan naiz eskolan etxean edo kalean kuadrarekin tabernan aita-amekin solasean. Nonahi egin daiteke lana berdintasunean eztabaidatu, hausnartu, elkartzen garen uenean. Aurrera begira eman beharrek urratsean denak igo behar dugu itxaropentsu trenean. Gonbidatuta zaudete Bilguneren izenean laister ikusiko dugu elkar guk Leitza aldean.

Valcarlos, Salazar, Alduides, Olazagutia eta Legutiano Euskadi Irratian

Xanti BEGIRISTAIN

Urtero-urtero, elurterren bat dugun bakoitzean, beti berdintsu gertatu ohi da, alegia, euskal hedabideetan hasten dira esaten mendate eta abarren egoera, eta lehendabiziko egunetan, normalean, entzun behar izaten dugu makina bat izen modu desegokian. Horixe da, hain zuzen ere, otsailaren 2an gertatu zena Euskadi Irrati publiko eta profesionalean, hots, behin baino gehiagotan aieratu baitzituzten honako izen hauek, gutxienez: *Legutiano*, *Valcarlos*, *Salazar* eta *Alduides*; eta bihara-

munean, baita *Olazagutia* ere. Geroago, eskuarki, hasten dira zuzentzen egindako oker horiek, eta, oraingoan ere halatsu gertatu da, nahiz eta hirugarren egunean, oraindik ere entzun duen berriz ere *Salazar*.

Nik ez dakit zein diren arrazoiak halakoak gerta daitezkeen, hainbeste urte dauzkan irrati profesional eta publiko batean, baina niri behintzat harrigarria suertatzen zaio urtero akats berberak modu triste horretan egitea; dagoeneko, ez nautu ustekabe harrapatzen, baina bai amorrazio galanta eman. Izan al liteke agian utzikeria, arduragabekeria, arinzeria, inbertsio gutxi egitea zuzentzaileak edukitzea momentu guztietan? Auskalo, zer edo zer izaten da, baina argi dagoena da, alor horretan ematen duen itxura, behinik behin, ez dela batera eder eta erdegaria. Gainera, erreparatzen badiogu, kontura-

tuko gara akats gehienak Nafarroa Garaikoak direla. Horrek erakusten du, nire ustez, zeinen arreta gutxi jartzen duen norbaitek EAEkoak ez diren gainerako izenekiko. Zer pentsatuko lukete EAEko herritarrek, konparaziora, Euskadi Irratian, halako egunetan entzuten balituzte, esaterako, *San Sebastian*, *Vitoria*, *Zarauz* edota *Salvatierra*? Segur aski, pertsona bat baino gehiago minduko litzateke. Edota espainiarrek, nola hartuko lukete baldin eta Radio Nacional de España n entzuten balute, adibidez, honako izen mordo hau, *Palentzia*, *Murtzia*, *Madril*, *Bartzelona*, *Errioxa* edo *Erroma*? Gaizki, seguru asko.

Euskadi Irratiko arduradunei arreta gehiago eta errespetu handiago eskatuko nieke euskara eta Euskal Herriarekiko, jakinda ere zein alderdi politikok agintzen duten Euskal Autonomia Erkidegoan.

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefona. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: info@ttipi.net

Posta: **Anduetzeta, 12 31760 ETXALAR**

Tel.: **948 63 54 58** Faxa: **948 63 54 57**

Lore-denda

Landi Flor

VENTA PEIO



Alegriak



Geranioak

*Udaberria badator,
Presta zaituz!!*

aukera paregabea

Landiflor lore-denda

Denboraldiko lore eta landareetan eskaintza zabala



Sagarrondoak



Muxikondoak



Gereziondoak



Udareondoak



Aranondoak



Venta Peioko
fideltasun txartelak
Landiflor ere balio du.

**... denboraldiko loreak
... fruta-arbolak**

Landiflor zure lore-denda egunero irekia: 9:30-12:30 | 13:30-18:30

Dantzarinea 31712 URDAZUBI | T. 902 210 800 | F. 948 599 446 | landiflor@ventapeio.com

www.venta-peio.com • 00 34 902 210 800



LOREAK ETA LANDAREAK
Astelehenetik larunbataz: 09:30-13:00/16:30-19:30
Ostango aurtoa | LESAKA I.T. 948 637 826



500110€
ttipi-ttapa

BAXERRI



- Lorategien zainketa
- Mendiko lanak

616 243 530

Tomas ARRIBILLAGA | Venta Peio LandiFlor - Dantxarinea «Jendeak eguneroko gauzetan behar duen zerbitzua ematea da gure misioa»



Aurten hamar urte beteko dira Dantxarinako Venta Peion LandiFlor ireki zenetik eta, honez gero, bere tokia egina du gure inguruko lore eta landareen merkatuan. Izan ere, zerbitzu zabala eta osoa eskaintzen die bezeroei. «Urte osoan idekia izaten dugu, astelehenetik igandera, goizez eta arratsaldez» azaldu digu Tomasek. «Orain, hotzarekin, jendea ez da etxetik ateratzen

eta dena motelago egoten da baina urte osoan, sasoiari sasoikoa izaten dugu». Konparazio batera, aspalditik ari dira atenditzen fruta-arbolen bat aldatzeko asmotan dabiltzanak. «Santa Katalina pasatu orduko (azaroak 25) hasten dira batzuk» dio Tomasek.

Orain, martxotik aitzinera hasiko dira bete-betean lanean kanpoko loreak aldatu nahi dituztenekin. Lorategi eta planta kontuetan denetarik izatea saiatzen dira: haziak, ongariak, botikak, hesietarako landareak, arbolak, lore-ontziak, lorategiko aulki eta mahaiak, ureztatzeko tresna eta mekanismoak... Gauza horiek denak antolatzeko instalazio haundiak dituzte muntatuak; alde batetik 600 m² dituen kristalezko aterpea berokuntza sistemarekin hornitua eta, bertze aldetik, 3.000 - 4.000 m²ko azalera duen bertze eremu bat *parterreka* zatitua, «dena esposizio gisa antolatua eta saltzeko prestatua» Tomasek dioenez. «Jendeak badaki hemen aukera bat dagoela eta nahiz eta gauza baten bila etorri, generalean gauza gehiago ere harrapatzen ditu».




Gereziondoa



basarteia
lurraldea | ingurumena
Ingurugiro eta basoen proiektu eta ikerketak

Ezkabarte Industrialdea, M1 | 31194 ARRE (Nafarroa)
T. 948 196 453 | F. 948 196 351
basarteia@basarteia.com | www.basarteia.com



Geranioak, surfiniak, alegriak, begoniak... dira jendeak gehien eskatzen dituen loreak

Gustu klasikoak gehien batean

Lore kontuetan jendearen gustuak nolakoak ote diren galdetuta, «beti izaten da gauza berriren bat baina, generalean, jendea klasiko xamarra» dela erantzun digu. «Lore klase batek edo plantaren batek ongi hartzen badio bere etxean, jendeak generalki harekin segitzen du. Geranioak, begoniak, alegriak, surfiniak... horiek dira gehien mugitzen direnak eta fruta-arboletan gauza bera da: sagarra, udarea... hemengo betiko frutondoak. Gero, etxe barnekoetan izaten dira lore bereziagoak-edo, baina dekoratzeko betikoak erabiltzen dira gehien batean».

Aholkua eskatuz

«Inguru honetako jendea baratze eta jardinetan aunitz usatua da eta badu esperientzia —dio Tomasek— baina, hala ere, aunitz galdezka etortzen dira 'sasoi honetan zer ematen ahal nuke' edo, 'nik landare hau nahi nuke eta halako toki batean ematen ahal nuke' edo, 'halako loreek zein abono klase' behar duten eta 'nola zaindu behar diren'... Hori da gure misiona —azaltzen digu Tomas Arribillagak—, jendeak eguneroko gauzetan behar duen zerbitzua ematea. Ez da aski ezkerreko eskuarekin hartu eta eskuinarekin ematea». Alabaina, aholku-emateak badu bere zailtasuna Tomasek kontatzen digunez. «Guk ere ez dakigu dena xuxen-xuxen erraiteko. Teoria berdinak ez du denetarako balio, aunitz ikusteko du toki horretan dagoen hezetasunak eta eguzkiak. Ez da gauza general bat erraiten ahal. Toki bakoitzak soluzio diferenteak ditu».

Azken urteotan prezioak ez dira garestitu

«Lore eta landareen mundu hau ez da aunitz garestitu azkeneko urteotan». Holaxe dio Tomasek galdetu diogunean krisiak sektore honetan zenbaterainoko ondorioak izan dituen. «Hasteko, produktoreek prezioak atxiki dituzte gehiago produzituz eta prezioa mantenduz. Egia da krisia ruleta bat dela eta denetan ezagutzen dela baina gurean ez da hainbertze sentitzen. Guk ez ditugu gauza garestiak saltzen eta nire iduriko lore bat ez da luxuzko gauza bat».

**MENDI LANAK • ESKABAZIOAK
GARRAIOAK • ZERRAKURAK
GARBITZE MEKANIKOAK**

Leku-Eder, Beñito • 31291 SOMILLI
Tel./Fax. • 948 430 304 • 439 047 387 • 499 461 294
seltzerri@yahoo.es

Carlos Txoperena
mendi garbitzetak eta landaketak

ITXITURAK

Tel.: 948 637 477
637 466 124
LESACA

“TELLETXEA”
Lorazaintza

*Paisajismoa
Lorategiak Diseinatzea eta Sortzea
Ureztatze Sistema Automatikoak
Kimaketak
Mantentzea lanak*

John Telletxea
Nekazar Ingeniari Teknikoa
Otxangoko Industrialdia, 78, Industria zahar
31770 LESACA (Nafarroa)
T. 619 418 683 - F. 948 637 049
john.telletxea@hotmail.com

www.telletxealorazaintza.com

Ituzia
Lanaberritza • Jardinetza

HIDROERENTZA
Kimaketak
zerrakurak
mantenimendua

**ZUHAITZAK
ZUHAIKAK**

KIMAKETA BEREZIAK: 14 metroko garabiarekin

FERMIN MARITORENA LARRALDE • Hegoalde karrika, 33 • 31780 BERA (Nafarroa) • 666 407 214 • 948 631 199

BORTZIRIETAKO KONTZILIAZIO ITUNA

1953ko Emazte Onaren Gida: Senarra kontent edukitzeko 11 arau

1- Afaria prest eduki. Denborarekin afari goxo bat prestatu bera ailegaten denerako. Bere beharrak kezkatzen zaituztela eta beretan pentsatzen aritu zarela erakusteko modua da. Gizon gehienak goseturik egoten dira etxera ailegaten direnean.

2- Eder agertu! Bera ailegatu baino 5 minutu lehenago atsedend hartu, frexko eta dizdiratsu egoteko. Zure makillajea errepasatu, ilean lizta paratu eta ahalik eta hobekien luzitu berarentzat. Gogoratu egun gogorra izan duela eta bakarrik lankideekin tratatu duela.

3- Atsegin eta interesgarria izan. Bere lan egun aspergarria hobetu behar da eta zuk ahal duzun guziaz egin behar duzu horretarako.

4- Etxea txukundu. Etxeko eremu garrantzitsuenetan azken erronda egin, juxtu senarra ailegatu baino lehenxeago. Eskola liburuak, jostailuak... gorde. Eta mahaia garbitu plumeroarekin.

5- Paradisuan sentiarazi. Hi-



labeterik hotzenetan tximenea piztu behar duzu bera ailegatu baino lehen. Zure senarrak atsedend paradisu batera ailegatu dela sentituko du eta horrek zuri ere animatuko zaitu. Azken finean, bere erosotasuna zaintzeak zuri ere satisfakzio pertsonal ikaragarria emanen dizu.

6- Seme-alabak prestatu. Ilea orraztu, eskuak garbitu eta be-

harrezkoa bada arropa aldatu. Bere altxor tikiak dira eta dizdiratsu ikusi nahiko ditu.

7- Soinuak gutxitu. Bera etxeratze orduan labadora, sekadora eta aspiradora itzali eta umeak isilarazi. Pentsa zenbat soinu aditu behar izan duen bere bulegoko egun astunean.

8- Zoriontsu agertu. Irrifar eder bat oparitu eta zoriontsu egiten

saiau. Zure zoriontasuna bere eguneroko esfortzuen saria da.

9- Erran behar duena aditu. Baliteke dozena bat kontu garrantzitsu izatea berari errateko, baina bera ailegaterakoan ez da unerik egokiena solasteko. Utzi berari lehenik hitzegiten, gogoratu bere gaiak zureak baino garrantzitsuagoak direla.

10- Bere lekuan jarri. Berandu ailegaten bada, zu gabe ateratzen bada edo gau osoan agertzen ez bada, ez kexatu. Bere konpromiso eta presioen mundua eta etxean erlaxaturik egoteko duen egiazko premia ulertzen saiatu.

11. Ez kexatu. Ez itoarazi funtsik gabeko arazoekin. Zure edozein arazo ttikikeri bat bertzerik ez da berak pasatu behar izan duenarekin konparatuta.

Extra. Gustura sentiarazi. Utzi silloian jartzen edo logelan etzaten. Edari bero bat prest eduki beretzat eta oinetakoak kentzea eskaini. Ahots goxo eta eztiarekin solastu.

Bortzirietako Gizarte Zerbitzuak • ssb@lesaka.net • Tel: 948 635036

sarnha
guzuzia sarnha

Orain sarnha 25 bati
34.000 bati sartzen
1.984.000 bati
www.sarnha.net

BAR BOTXO OSTATUA

Zelai • BERRA • 948 630 052

elika
Dietetikoa eta elikadura

• Dietetikoa
• Osoa garrantzitsua
• Osoa garrantzitsua
• Osoa garrantzitsua

Zelai, 4. sotoa • BERRA • Tel. 948 631 283 • elika@elika.com

MUKIXU UDAL HAUR ESKOLAN

**2012-2013 IKASTURTERAKO
AURREMATRIKULA EGITEKO
AUKERA ZABALIK!!!!!!**

MARTXOAREN 1etik 16ra:

• Informazio gehiago:
Mukixu Udal Haur Eskola
Etegora guzuziakua, 42
T./F. 948 631 656
31780-BERRA
e-posta: berakotitika@bera.com

Berako GOYA EZ DA IXTEN

Josu Goyak 65 urte beteko ditu eta jubilatzen da

Martxoaren 2an ETORRI OSPATZERA

Erosteko konpromisorik gabe, pintxoa eta tragoxxa bat hartzera GONBIDATUTA zaudete!

Zelai, 2 • BERRA • Tel. 948 630 052

MERKATARITZA → LARUN HAIZPEK ANTOLATUTA

Laugarren salgai hondarren feria eginen da martxoaren 4an

12 komertziok parte hartuko dute

TTIPI-TTAPA

Aitzineko urteetako arrakasta ikusita, aurten laugarrenez, salgai-hondarren feria egitea erabaki du Larun-Haizpe merkatarien elkarteak. Martxoaren 4an eginen da, 10:00etatik 19:30era, eta herriko 12 dendarik stockean dituzten artikulua prezio onean eskainiko dituzte.

Kiroldegira sartzeko euro bat kobratuko da 18 urtetik goitikoei eta horrela, zenbat jendesartzen den jakiteaz gain, sarrera horrekin, laguntzaile diren ostatueta tragoxka bat doan hartzeko aukera izanen da.

Gaztetzeko berriak

Aitzinekoetan, Sara, Legasa eta Azkainen egin ondotik, aurten Beran eginen da eskualdeko gazteak elkartuko dituen eguna. Martxoaren 10ean eginen da eta hurrengo alean emanen ditugu xehetasunak. Hori baino lehen, larunbat honetan, hilak 25, Kaxernotegia eginen da. Txartelak Katakun eros daitezke orzeguna baino lehen.

Liburutegia itxita

Nafarroako Gobernuak ez du liburutegiko langilearen amatasun baja ordezkatu, eta hori «gogor kritikatu» du Udalak, «oinarrizko eskubideak

urratzen ari direla» salatuz. Herritarrak zerbitzurik gabe uztea leporatu dio Gobernuari.

Amatasun baja bat ez ordezkatzea «onartezina» da Udalarentzat, eta krisiaren aitzakian horrelako murrizketek oinarriko eskubideei eraso egiten dietela adierazi du: «batetik, amatasunaren eta honen eskubideen aurka egiten du Gobernuak, beharrezko ordezkokoak ez paratuz eta emakumeen papera guttietisiz. Eta bertetik, herritarrek liburutegia erabiltzeko duten oinarriko eskubidea urratzen du».

Liburutegietako lanposturako oposizioetan, Berakoa hutsik gelditu izana ere kritikatu du Udalak eta ondorioz, «guttinez bertze bi hilabetez liburutegi zerbitzurik gabe» geldituko da herria. Gaineratu duenez, «lehendik ere oposizioaldian lanpostu horretarako euskararik ez eskatuta, herriaren beharrei eta errealitateari muzin egin dio Gobernuak eta orain, berriz ere, erakutsi du bigarren mailako herritartzat gaituela».

Lanpostua berehala ordezkatzeko exijitu du Udalak, eta eskaria Parlamentura eramatekoa da.

Akats zuzenketa

Aitzineko alean, Larun Ttiki Mendi Taldeak Nafarroako Mendi Federazioaren saria jaso zuela azaldu zen, baina saritua Larun Mendi Taldea da.



UTZITAKO ARGAZKIA

Santa Ageda egunaren bezpera kantuan

Hotz haundiari, kantuan erantzun zioten herritarrek Santa Ageda bezperan. Azken hiru urteotan bezala, Ikastolak antolatu zuen eta koplak kantari ibili ziren karrizkarrিকা, trikittilari eta bertsolariekin eta makilak eskuetan zituztela. Aurtengo bertsolariak Patxi Castillo eta Jokin Pinatxo izan ziren.



UTZITAKO ARGAZKIA

Kaldereroak inauterien atarian

Kaldereroen musika eta arrabotsek eman zioten hasiera inauteriei otsailaren 11n. Zero graduz beheitiko eguraldi hotzari aurre eginez, koadrila haundia ibili zen karrizkarrিকা eta Altzateko plazan egin zen kaldereroen ezkontza.



ARGAZKIA: TOKI ONA INSTITUTUA

Toki Onako ikasleak errealizazio teknikak ikasten

Toki Ona institutuko DBH 4. mailako 64 ikaslek oinarriko bihotz eta biriketako bizkortze teknikak ikasteko aukera izan dute. Hiru zatitan egin dute ikastaroa: hasierako, ikasle bakoitzaren ezagupen maila neurtu da; gero, azalpen teorikoak eman; eta bukatzeko, egokitutako gelan eta beharrezko materialekin, ariketa praktikoak egin dituzte: bihotz masajea, ahoz-ahokoa, eta albo-segurtasun postura. Ikastaro hau osasun-larrialdietako profesional batzuek martxan jarritako ekimena da. *EI ABC que salva vidas* elkarteak sortu zuten lehenbizi, eta gero, Osasun eta Hezkuntza Sailaren arteko proiektu bat sortu zen. Hortik ikastetxeetara hedatu da.

LESAKA

ELKARTEAK → URTEKO BATZARRA

Jose Luis Sunsundegi da Beti Gazteko presidente berria

16 urte karguan eman dituen Salvador Yanci ordezkatu du

Aitor AROTZENA

Jose Luis Sunsundegi da Beti Gazte elkartearen presidentea berria, otsailaren 11ko batzarrean aukeratua suertatu ondotik. Sunsundegik, 1996tik honat presidentea izan den Salvador Yanci ordezkatu du. Patxi Saenz izan da kultur arloko presidentea ordea eta Jesus Mari Zapirain kirol arlokoa. Salvador Yancik ez du oraindik elkartearen ardurak erabat utziko, erakundeetako harremanetan ariko baita. Idazkaritzan Modesto Maia izan da, diruzaintzan Ana Errandonea, mantentzean Joxe Mari Gurruixaga, kulturaren Marisol Irigoien, mendi sailan Bixente Igarzabal eta Diego Garibai, txirrindularitzan Beñardo lantzi, Joxemi Maritxalar eta Javier Igarzabal, oinarritako futboleko Juan Angel Ordoki eta Alberto Arakues eta fut-

boleko bokalietan Kotte lantzi, Iñigo Altzugarai Abaxkene eta Mikel Oiarzabal. Prentsa arloa eta web orriaren kudeaketa Juanjo Guerrero eta Javier Oiarzabal esku segituko du.

Urteko aurrekontua 108.000 euro ingurukoa izanen da eta urteroko ekitaldi beretsuekin segituko dute mila bazkide baino gehiago dituen elkartearen. Zazpi futbol talde federatu zelairatzen ditu astero Beti Gazte eta Mastegin, alebin eta benjamin mailako futbol eskola eta txapelketa ere antolatzen ditu. Txirrindulari eta mendi taldeak ere astero ateratzen dira. Aurten, bi urtetik behin antolatzen den Lesako Mendi Itzulia antolatuko da ekainaren 17an, hamekagarren edizioa. Horretaz gain, joan den urtean hasitako ibilbideari segituz, Santiago Bideko lau etapa egiten dira. Martxoaren 25ean Iruña eta Gares arteko egina da eta ondoko hilabetetan, Gares-Aiegi, Aiegi-Sansol eta Sansol-Logroño. Irarurketa Klubaren baitan, aurten *Beti Gazte*



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Edoskitze tailerraren aurkezpena egin da

Edoskitze Taldea duela denbora bat hasi zen lanean eta hileko azken ortzeginetan, 17:30etik 19:30era biltzen da udalak Koskonta Bideko 7ko bigarren pisuan duen aretoan, haurdun dauden emakumeek eta bularra ematen dutenek izan ditzaketan zalantzak argitzeko helburuarekin. Jendaurreko aurkezpena egin zuten otsailaren 9an, berandu ekologiko baten bitartez. Bularra ematen ari diren amak bildu zituzten, edoskitze naturalaren aldeko publizitatea egiteko. Agertu zirenen artean Laura Gutmanen bi liburu zozketatu zituzten. Aldizkari honen erreportajearen edoskitze taldeei buruzko informazio gehiago duzue.

Kantuz ekimen berria gauzatu nahi da, kantu zaharrak ikasiz. Gainera, oraindik erabat zehaztu gabe badago ere, Beti Gazteren Eguna edo Astea ere antolatu nahi da eta Mastegi futbol zelaian belar artifiziala aldatzeko asmoa ere hor dago.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Jose Luis Sunsundegi, Beti Gazteko presidentea berria.

ELKARTEAK → «KABI BAT, HAMAIIKA HEGADA»

25. urtemuga ospatzen hasi da Arrano Elkarte

A.A.

Arrano elkarteak 25 urte bete ditu aurten eta urtemuga hori behar den bezala ospatzeko batzorde berezia martxan jarri dute lana eta ideiak dituzten guzientzat irekia. Ospakizuna "Kabi bat, hamaika hegada" lelopean bildu nahi izan dute eta 2012an Nafarroako konkistaren 500. urtemuga betetzen denez, azpi-lelo moduan "25 urte deskonkistatzen" erabiliko dute.

Inauterietako Astelehenean elkarrekin mozzorrotzeko deia egin zuten eta *Kabia* gaitzat hartuta, gisa guzietako

txita, hegazti eta pelaje guzietako arranoz mozzorrotu ziren kideak.

Hemendik aitzinera, lehiaketa gastronomikoa, bazkide guzietako lirakeen bide baten edizioa, Arrano 25 urte hauetakoa historia bilduko duen liburuxka argitaratu, hitzaldiak, irteerak eta bertze zenbait ekitaldi prestatu nahi dituzte. San Ferminetarako denek erabiltzeko moduko zerbait atera nahi dute, kamisetaren bat edo, eta urte bukaerarako besta handi bat antolatu nahi dute, afaria edo bazkaria barne.

XATURETXEA
ZAZPI JATETXEA
T: 948 637 260 - LESAKA

IRU BIDE
T: 948 637 260 - LESAKA

BOZZAIDE
T: 948 637 260 - LESAKA

KATTU Taberna - Jantetxea
Asteburuetan:
Menuak | Piatel Kombineatuak
Ogitartekook | Hamburgerak
Sandwich-ak
948 627 573 - 618 735 539 - LESAKA

KULTURA → DANTZA IKUSKIZUNA

Parisko Gazteria dantza taldeak saioa eskainiko du larunbatean

Herriko dantzariekin ariko dira

Irune eta Itsaso

Larunbat honetan, otsailak 25, gonbidatu bereziak izanen ditugu, Parisko Gazteria dantza taldeak, herriko dantzarien laguntzarekin, saioa eskainiko baitu elizan. Ikuskizuna 19:30ean izanen da, eta hori dela eta, egun horretako meza 18:30ean izanen da. Ondotik, dantzariak afaria eginen dute Herriko eta gauerdik aitzinera Heineken besta izanen da.

Berriz 'Finlandia'ra
Orain dela hiru aste,

EITBko *Finlandia* programan Etxalarko publikoa izan zen. Kontua da, programakoak hagitik kontent gelditu zirela herritarrek bertan izan zuten jarrerarekin eta programatik eskerrek eman dituzte eta berriro joateko gonbidapena ere luzatu dute.

Martxoaren 6a izanen da eguna, eta oraingoan ere beraiek jarriko dute joan-etorriko autobusa. Beraz, aurrekoan bezala, ongi pasatu eta irri batzuk ateratzeko 16 urte baino gehiagoko edonor gonbidatua dago. Martxoaren 2a baino lehen 697 397567ra (Irune) deitu izena emateko.



ARGAZKIA: ITSASO ELIZAGOIEN

Elur guti baina hagitik egun hotzak izan dira

Azken urteotako hotzik haundienak izan ditugu otsailaren lehenbiziko egunetan. Elur aunitz egin ez badu ere Siberiako haizearen eraginez, hotz ikaragarria izan da, termometroak zero azpitik 9 gradutara jeitsi baitira. Honen adierazgarri dira argazkian ikusten dire hormaziriak, Olajaundegiko Bordako kiwi landareak dira.

ARGAZKIA: REBEKA ARANZADI



Kenpo txapelketa

Nafarroako Kenpo Txapelketa sariak lortu dituzte herritarrek: benjaminetan *cata esku hutsik* modalitatean 2. Unai Arburua izan da eta 3. Nico Gartzia. *Cobudo* mailan benjaminetan 3. postua Mikel Iturriak lortu du eta alebinetan 3. Nico Gartzia izan da. Nesketan *combate al punto* kadeteetan Ainhoa Tellecheak irabazi du. Haundietan Minerba Martin 3. gelditu da eta gerriko urdinetik belzen barne, Goiatz Iturbidek 2. postua lortu du. Zorionak!

SUMINISTROS YANCI

35 urteko esperientzia

ITURGINTZA eta BEROKUNTZA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

Baimendutako instalatzaile eta mantentzailea

- BIOMASA
- AEROTERMIA
- GEOTERMIA
- EGUZKI ENERGIA
- TERMIKOA

IRITENBIDE ENERGETIKO BERDEAK

Pellet eta egurrezko kalderen erakusketa

Dirulaguntzak tramitatzen ditugu

ZERBITZU TEKNIKOKO eta
BANTATZAILA OFIZIALA

TATANO

Zaldubia Industrialdea, 2 - IRURITA - 948 580 109

ARANTZA

GIZARTEA → IKASTARO BERRIA

Baratzegintza ekologikoari buruz ikastaroa antolatu du Udalak

Otsailaren 29a baino lehen eman behar da izena Herriko Etxean

emanen du. Interesa duenak Herriko Etxean izena eman behar du otsailaren 29a baino lehen eta bakoitzak 25 euro ordaindu behar ditu.

Bortziritako pilota txapelketa

Nerea ALTZURI

Berriki, EHNE sindikatuen antolaturiko baratzegintza ekologikoari buruzko tailer bat izan da. Parte hartzea ezinezkoa zuten herritar batzuek interesa erakutsi dute eta bertze behin ere, gai beraren pean ikastaroa antolatu da.

Udalaren ekimenez, 12 orduko ikastaroa izanen da martxoaren 3, 10 eta 17an eta 09:00etatik 13:00etara. Dena den, baliteke hiru egunez egin beharrean bitan egitea, baldin eta bigarren larunbatean eguraldi ona egiten badu, goiza eta arratsaldea aprobetxatuta.

Josune Zamora hondarriarrek ikastaroa

Bortziritako eskuz banakako pilota txapelketaren barne, Alebin A eta B eta infantil A mailako finalerdiak martxoaren 3an jokatu dira herriko frontoian.

Pirritx, Porrotx eta Marimototsen saioa

Martxo hasierarako salgai paratuko dira apirilean Pelle Tikiren alde Beran eginen den ikuskitzuneke sarrerak. Bera (Errekalde), Lesaka (Atxaspi), Doneztebe (Titi), Elizondo (Fantxike), Igantzi (La Villa), Etxalar (Herriko), Sunbilla (karpina), Arantza (Pabloenea) eta Urdazubin (farmazia) egonen dira.



ARGAZKIAK: MIKEL LARRETXE, AITOR ELEXPURU ETA NEREA ALTZURI

Inauteri ederrak izan dira!

Zero azpiko tenperaturak izanda ere, giro beroan joan dira inauteriak. Ortzegun eta ortziralean, Mozorro Xuriak baserrietan eta herriko etxeetan puxka-puxka ibili ziren. Gaztetxoak, berriz, ortziral eta larunbatean egin zuten. Ortzegunean, eskolako lagunek mozorro besta egin zuten. Ortziralean, 130 afaltiar bertso afarian izan ziren; eta hogeit hamar emakume afaria egin zuten. Larunbat arratsaldean, hainbat haur eta guraso mozorroz ziren eta kalejira egin zuten. Ondotik, txokolate beroa hartu zuten. Mezondoan, mozorroak txokor biltzen, motozerran eta pilotan aritu ziren, ikuskizun ederra eginez. Boletoen zozketako saridunak ere atera ziren: telebista eta urdaiazpikoa Simonera joan ziren eta GPSa Aitziber Lizardik eraman zuen. Arratsean eta goizaldean giro paregabea izan zen. Orain, Mozorro Besta martxoan izanen dugu.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Arkupeak-ekoen bazkaria

Arkupeak elkarteko herriko bazkideek bazkaria egin zuten otsailaren 5ean Pabloenean. Hori baino lehen, meza izan zen aurten hildako bazkideen omeze, eta bazkaldu ondotik, mus txapelketa jokatu zuten.

KOXKONTA
Jatetxea

Espezialitateko barerak | Jantzerietako barerak
Eguzkia eta abuzuko menuak | Karta |

SAGARDOTEGIA
IREKIA dago

Sagardotegiko menuak aukeran

Ude guztian egunean,
eguerdian irekia
Gauz irekia
artilo eta karubafetan
Sagardotegia ere!

T 948 627 519 • 948 627 503 | Otsango, 1 • LESAKA

Karsuk[®]

Muebles de cocina
Muebles de cuisine
Sukaldeko altxariak

K

Karlos Pontibar Sainz

C/Sara 1 bajo local C
31780 Bera (Na)
T/F +34 948 625 430
M +34 699 894 084
info@karsuk.eu
www.karsuk.eu

KULTURA → KULTUR BATZORDEAK ANTOLATUTA

Xake erakustaldia eta film emanaldia izanen dira otsailaren 26an

Goizean xakean ariko dira Nafarroako bi txapeldunak

Arratsaldean Kutsidazu bidea, Ixabel filma ikusgai

Joxean ORTEGA

Aitzineko aldizkarian iragarri bezala, Kultur Batzordeak antolatuta, Nafarroako bi xake txapeldunak Biltoki elkartearen 26an, igandearrekin. 11:00-etatik aitzinera, xake erakustaldia eskainiko

dute. Xakean aritzen den edozein hurbiltzen ahal izanen da eta bertara azaltzen direnekin simultaneak –beraietako bat aldi berean bertzeen aurka– eta itsu moduko partida bat jolastuko dituzte bi gonbidatuek, Unai Garbisuk eta Mikel Ortegak, hain zuzen.

Arratsaldean, beriz, 19:30ean, ziber espazioan, *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* pelikula ikusteko aukera izanen dugu. Umorez beteriko filma da, *Finlandia* telebistako programa egiten duten taldeko partaideek aktore lanak eginez: Alkain eta konpainiarekin irri ederrak eginen ditugu!



ARGAZKIAK: JONE URTXEGI

Inauteri ederrak izan dira

Hotza bai, baina giro ederra ere bai. Inauteriak ongi joan dira aurtengoan ere eta parte hartzaileak ere izan dira, 48 gazte ibili baitira etxez-etxe eta baserriz-baserriko eskean. Zozketako lehen saria, beriz, bildotsa eta Iñurrietaren ardo lotea, Aiesteneko Julitxu Antxordokiri tokatu zitzaion eta bigarren saria, Iñurrietaren ardo lotea, Akotraingo Virtudes Iguzkiagirri.

SALGAI · HONDARREN FERIA
FERIA DEL SALDO
 SOLDES EXCEPTIONNELLES
 2012

MARTXOAK 4 IGANDEA
BERA

10 h. ➔ 19:30 h.
KIROLDEGIA



antolatzaileak / organizadoreak
larun haizpe
AGARA kirolak
ARTIBIDA M. leizaola
ARTURO arropa-denda
BORTZIRIAK elektrotrogoiak
COMOSERVICE informetika zerbitzuak

ELKAR liburu eta paper denda
HARTZITZAK arropa-bizilag
YOAM leizola
ZELA kirolak





SUNBILLA

KULTURA → EGUERDITIK AITZINERA HASIKO DA BESTA

Kantu zaharren eguna eginen da martxoaren 10ean kanpinean

Kantuak Anjel Mariezkurrena eta bere taldeak zuzenduko ditu

Maider PETRIRENA

Kantu zaharrak kantatzea gustuko dutenek aukera ezin hobea izanen dute martxoaren 10ean gure herrian, Ariztigain kanpinan, Kantu Zaharren Eguna antolatuta baitu egun horretarako.

14:00etan bazkaria izanen da, eta aipatu, izena emateko azken eguna martxoaren 6a, asteartea, dela. Kanpinera deitu beharko da (948 450540). Bazkariak 32 euro balio ditu eta bazkaria eta arratsaldeko pintxoaren truke 40 euro ordaindu beharko dira.

Bazkaldu ondotik, arratsalde guztian kantu zaharrak abesteko

tenorea izanen da, Frantzisko akordeolariaren laguntzarekin. Anjel Mariezkurrenak eta bere taldeak eginen dute kantuen gidari lana.

19:30 aldera pin-txoak izanen dira indarberritu eta kantuan segitzeko.

Guraso Elkarteko juntan aldaketak

Guraso Elkarteak deituta, otsailaren 7an bilera egin zen eta Guraso Elkarteko juntan sartuko diren hiru lagun berrien izenak atera ziren.

Bi urtez egon ondotik, junta utzi dutenak Idoia Zunda, Xole Gartzia eta Azucena Carro dira. Bertze urte batez segituko dutenak, berriaz, Pilar Korta eta Iciar Mikelperizena dira eta sartu diren berriak Ines Elizondo, Maite Jorajuria eta Itziar Altzuri.



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

Eskolak badu etorkizuna

Otsailaren 6tik 13ra bitarte Haur eta Lehen Hezkuntzetako 2012-2013 ikasturterako aurrematrikulazioa egin da eta aspaldiko urteetan ez bezala, heldu den ikasturtean hamasei haur berri sartuko dira eskolan, zortzi neska eta zortzi mutiko: Xabier Armendariz Aizkorbe, Lorea Arruabarrena Destribats, Alain Bazterrika Obregozo, Ekiñe Bertiz Ariztegi, Nahia Bertiz Babaze, Nahia Elizondo Mariezkurrena, Xabier Gorria Elizondo, Eneko Ibarra Olaetxea, Omar Irazoki Ezkurra, Garaine eta Iraide Iriarte Petrarena, Eneritz Iturralde Ezkurra, Ander Larra-buru Hernandorena, Alberto Latasa Iglesias, Oihane Lazkano Alzuri eta Kamen Sagarzazu Latasa.



Urteko mendi irteerak


Urteko egutegia osatu du Ulibeltzak Mendi Taldeak. Hurbilen dauden ateraldiak aipatzearen, otsailaren 25ean Petretxemara joanen dira (06:00etan plazan), martxoaren 2tik 3ra Xabierrera joanen dira (19:00etan plazan). Martxoaren 18an Adi mendira igoko dira (07:00etan plazan) eta martxoaren 24an Los Monges aldera joanen dira, 06:00etan plazatik abiatuta.



PAGOLA
EMBUTIDOS
artesanos desde
1940

Altzateko plaza, 2 • BERA • Tel. 948 630 054

José L. González Enguita
BERRITAN
tel. 666 235 466





Bertako sagarrarekin egindako sagardoa

- 250 lagun esortita
- Klimatizazioa
- Sagardotegiko menuak

TXOTX GARAIA IREKIA

102 Meeka auzoa • 20304 IRUN • Tfnoa 943 423 138

IMANOL ITURRIA
ZURGINA

Enpresa eta partikular

Tel. 661 577 137
E-posta: imanoli@iturria.com

Edakatu zurekoontasun kongresu-erik gela



KULTURA → MENDAUR ETA ERREKA GURASO ELKARTEAK

Hamabortzero filmak eskainiko dira haur eta helduentzat

Lehenbiziko pelikula igandean emitituko da

Nerea TELLETXEA

Mendaur eta Erreka guraso elkarteek zinema martxan paratu dute. Hilabete bitan, bi igandetan, eta hamabortzero bi pelikula eskainiko dira, bata ttikiendako eta bertzea, gazte eta helduendako.

Lehendabiziko emanaldia otsailaren 26an izanen da eta eskainiko diren filmak hauek izanen dira: *Pitufoak* (16:00etan) eta *X men*, lehendabiziko belaunaldia (18:30ean). Emanaldi hauek ekainera bitartean izanen dira, udan etealdia eginen da eta heldu den udazkenean berriro jarraituko dute. Ikusleek sarrera gisa euro bat ordaindu beharko dute, horrela guraso elkarteek gastuak estali ahal izateko.

Aipatu, ekimen honek Burrenba Gazte taldeak baliabide teknologikoekin lagunduko duela eta Udalak zinema aretoa utziko duela.

Xabierretera ateraldia

Urtero bezala, Xabierrealdian parte hartzeko autobusa antolatuta du Erreka Kirol Elkarteak. Martxoaren 10an, larunbatan, izanen da irteera. Apuntatzeko Titi Ostaturajoan behar da edo 948 450271 ra deitu. Autobu-

saren prezioa 15 eurokoa izanen da bazkide ez direnentzat eta 12 eurokoa bazkideentzat.

Autobusa goizeko 5etan aterako da Iruñeraino. Handik Xabierre- ra dauden 42 kilometroak oinez egin beharko dira. Akitzerakoan, autobusa Xabierretik Doneztebera itzuliko da.

Galera handia herrian

Herriagatik lan handia egin duten bi lagun joan egin zaizkigu zoritarreko aste baten barruan. Alde batetik, Maria Jesus Perurena, besteak beste, urte askoz Donezteben irakasle eta zuzendari izandakoa. Bertzalde, Jabier Elizalde, hainbat gauzen artean, herriko eta inguruko elizkizunetan organo-jolea. Hutsune handia utziko dute. Beraientzat agur berexi hau.

Bertso saio ederra

Bardoak 2012 izeneko Nafarroako Taldeko Bertsolari Txapelketaren barne, saioa jokatuzen otsailaren 3an Casinoko elkartearen. Afariaren ondoren, bertso saioa jokatuzen Malerrekako Jituk -tartearen Maialen Belarra herritarra- eta Barañaingo Beteranoak taldeek. 80 bat entzule elkartu ziren elkartearen, eta bertsoekin gozamen handia hartu zuten. Azkenean etxeko taldeak eraman zuen jokoa zegoen puntua.



ARGAZKIA: ERREKA ELKARTEA

40 lagun dantzak ikasten


Errekek antolatuta duen dantza ikastaroa izugarriko arrakasta izaten ari da. Izan ere, 40 lagunek eman dute izena. Ortziraletan izaten da, bi taldetan banatuta, 20:00etatik 21:00etara bat, eta 21:00etatik 22:00etara bertzea, gimnasioan.



ARGAZKIA: ARKUPEAK ELKARTEA

Bortz herrietako Arkupeak-ekoen bazkaria

Donamaria, Gaztelu, Oiz, Urroz eta Doneztebeko Arkupeak-eko kideak otsailaren 5ean elkartu ziren Donezteben. Eguerdian, meza izan zuten herriz-herri, eta 14:00etan Ameztiara jatetxean bildu ziren bazkaltzeko. Ondotik, mus txapelketa jokatu zuten.



Mendaurren goiti eskalatzen

Egun hauetan denon mintzagai izan da eguraldia. Hala ere, egun hauetako hotza ez da denendako kaltegarria izan. Izan ere, herriko bi gaztek, Igor Agesta eta Iñigo Lasagak, azken eguneko horma hauek aprobetxatu dituzte Medaur mendian izotz eskalada egiteko. Izotzez osaturiko kaskada eder hau eskalatzeko aukera izan zuten. Kostako da berriz ere horrelakorik egitea.

ELGORRIAGA

UDALA → INBERTSIO BERRIA

Karrikak garbitzeko ur pistola erosi du Herriko Etxeak

Edozein herritarren eskura egonen da

Mattin LARRALDE

Ur pistola erosi du Udalak, karrikak garbitu ahal izateko eta herriari irekia utzi dio bere erabilera. Karrikak garbiak mantentzeko eta paretetako goroldioa eta zikinkeria presioarekin kentzeko erabilgarria da.

Dagoeneko lehenbiziko proba ere egin da, haurren parkera doan paselekuan. Baina hilerriko bidaskak ere eginen dira, bereziki arriskutsuak daudelako. Orain ez dago aitzakiarik nahi duenak bere karrika eta paretak edo nahi dena garbitzeko.



ARGAZKIA: MATTIN LARRALDE

Haurren parkera doan pasabidea garbitzeko probatu da ur pistola.

Udal ordezkarien afaria

Lau urtetik behin, Udalaren aldaketarekin afaria egiten dute udalean sartzen direnek eta ateratzen direnek. Aurren, berandu izan arren,

otsailaren 10ean egin zen Hilarion jatetxean. Maiatzeko hauteskundeetan ez zen talderik aurkeztu eta bigarren deialdian, abenduan, osatu zen udal berria. Horregatik egin da afaria berandu.

HERRI SARRERAKO PANELA

Aitzineko Gobernuak obrak aurkezteko herri sarreran paratu zuen panela, bertako ostatuen, landa-etxeen, dendaren eta bainuetxearen publizitatea egi-

teko erabili nahi da. Hala behintzat, etortzen denak informazioa izanen du. Herri txikietan denetaz balitu behar du.

Arkupeak-eko bazkaria

Arkupeak jubilatuen elkarteko kide diren Zubietza, Aurtitz, Ituren eta Elgorriagako bazkideek besta eguna izanen dute martxoaren 4a, igandea. Joan den urtean, Iturenen egin zuten hitzordua eta aurren, Elgorriagan egingen dute.

Igandea izanda, bazkoitzak bere herrian meza entzuteko aukera izanen du eta ondotik, 14:00 aldera, Hilarion jatetxean elkartuko dira. Han bazkaria egingen dute.

Lehenbiziko
Bazkaria
Jubilatuak
Pasaia 2012

Herriko gunea 30.31700 Lesaka
T: 948 637 514

ZUBIONDO
Jatetxea

Ajasta karrika
BERA NAFARRA

okaNe

HARATEGIA / URDAITEGIA
Jardun. Bar. Kafea
T: 948 630 018
Kantimuturrerri 12 • BERA

BORTZIRI
UNSION ANAIAK

Sukalderako altzariak

Herrero errota • LESAKA
Tel: 948 637 266 • 907 226 891 • Fax: 948 637 511

A

aterpe

T: 948 634 179
ARANTA
www.arantza.net

LARRALDEK
eta
LINDOURRENBORDEK

Baztan Bidasoako sagardotegiak

Dolarea
Txotx denboraldia irekia
Eskualdean egindako sagardoa

LARRALDE | Tolosa auzoa • LEKAROTI | 948 452121 • 626 494317
LINDOURRENBORDA | Nabaz auzoa • LESAKA | 948 637212

URROZ

OSPAKIZUNAK → AKITU DIRA INAUTERIAK

Etxez etxeko eskearekin eta otordu artean joan dira inauteriak

Gazteek traktore gainean egin dute urteroko eskea

Joseba URROTZ

Otsailaren 3tik 5era ospatu ziren inauteriak, eta urtero bezala, ez zen otordurik faltatu.

Ortziralarekin afaria egin zen, giro ederrean, berandu arte luzatu baitzen, altxafero eta guzti! Larunbatean, ekitaldi nagusia bihurtu denaren txanda etorri zen eta baserriz-baserrri ibili ziren gazteak puskak biltzen, mozorroturik eta traktoreko gurdia estalpe eta guzti apaindurik, hotzari aurre egiteko.

Herrira itzultzerako aspaldixko ilundua zuen, eta itzulian ibili ez zirenek afaria izan zuten. Herrian ere ibili ziren gaztetxoak puskak biltzen.

Igandeko bazkariarekin akitu ziren aurtengo inauteriak.



ARGAZKIAK: JOSEBA URROTZ

Hitzak sobera dira inauteriak giro ederrean joan direla azaltzeko. Argazki hauek inauteriak nola joan diren errateko nahikoak dira, begiratu bertzela... Orain, heldu den urtekoen esperoan egon beharko dugu!



Leurtzako urtegia hormatua

Hotzak eta elurrak irudi aski politak utzi dizkigute gure bazterretan. Eta horren adibide da Leurtzako urtegia nola egon den aitzineko asteetan, egindako tenperatura baxuen ondorioz, hormatuta ikusi baitugu urtegia.

ASTE SANTUA

Tenerife 5 egun / 7 pert. Mantaxu-erdi H. 700.000.000	681€	Istanbul 5 egun / 4 pert. Ohe eta Gosarri H. 700.000.000	630€
Praga 5 egun / 4 pert. Ohe eta Gosarri H. 700.000.000	705€	Tunis 5 egun / 4 pert. Ohe eta Gosarri H. 700.000.000	669€
Berlin 5 egun / 4 pert. Ohe eta Gosarri H. 700.000.000	804€	INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK: Ertegaraz 22, Sotilea, 48100 BERRA, Nafarroa Tel. 943.031.203 E-mail: bera@viajesiberia.com	

Erreserbak
otsailaren 29 arte

%10

 Deskontua

Abuztuaren 15etik abuztuaren 31ra, salbu Pragara eta Berlinera irauteak. Prezioak pertsona bakoitzeko bira eta gela bakoitzeko eta adierazitako erregimenaren. Aste Santuko egun zehatz batzuetarako balio dute. Galdetu ditza zehatzak. 300€ko Deskontua 17.000.000.000. %5 otsailaren 29a baino lehen erreserbatuz gero. + %5 Visa Viajes Iberiarren ordainduta. Erreserba egiteko kudeaketa gastuak sartu gabe: IDC.

VIAJES IBERIA

ITUREN

GIZARTEA → GERTAERAK

Inauterietan herritarrek jasotako isunak bertan behera uzteko saiatzen ari da Udala

Isunak eta kontrolak izan dira inauterietan

Arkaitz MINDEGIA

Joan ziren aurtengo inauteriak, baita ederki joan ere umore, joare eta mozorroen aldetik. Baina aurreko inauterietan Foru Poliziarekin hainbat eta hainbat gertaera pasatu dira. Erran, bai astelehen eta bai astearte goizean, desfile garaian herritako jendearen autok geldiarazten ibili zirela, karrozei ere isunak jarri zizkieten... Eta arratsaldez herrian barna edozein tokitan kontrolak paratu zituzten...

Eta horiek denak alde batera geldi daitezten, lanean ari da Udala. Isunak eta istiluak bertan behera gelditzea nahi baitu. Izan ere, gure herriko inauteriak hiru herritako jendearen eta hi-

ru tokien arteko hartuemanen oinarritzen dira, orain batzuei bisita egin ez eta gero bisita bueltan hartuz...

Orakunde

Inauteri egun ofizialak ailegatzean, ortzegunarekin, Orakunde iristen da baztandarrendako. Badira urte dezente Oronoz-Mugairira gure herriko txistulariak joaten direla beraien txistu soinuekin herria alaitzera. Urte batzuk atzera eginez, Makutso bere alabarekin eta Fermin la-gun zuela hasi ziren, eta orain, berriz, Maribel bere semearekin eta Fermin atabalariarekin joaten dira. Segi horrela!

Tresanea

Duela gutti zerbitzu berria inauguratu dute gure herrian, Tresanea apartamentu-hotela. Hurrengo aldizkarian infor-



ARGAZKIA: NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA

Bortz herritar Nafarroako Taldekako Bertsolari Txapelketan

Nafarroako Taldekako Bertsolari Txapelketan herriko bertsolari eta musikariak parte hartzen ari dira. Alde batetik, Iker Gorosterrazuk eta Alazne Untxalok, Amaia Elizagoien oronoztarrarekin batera, Erauntsi taldea osatzen dute, Oihana Minda-gia eta Oihana Elizalde trikitilariarekin, besteak beste. Eta bertzetik, Egoitz Gorosterrazu Malerrekako Jituk taldean dugu, Ander Fuentes eta Maialen Belarrarekin.



ARGAZKIA: AINARA MINDEGIA

Bazterrak txuri-txuri izan ditugu

Elurrak eta zero azpiko tenperaturak izan ditugu otsail hasieran, baina ezin ukatu bazterrak aski polit gelditu direla. Argazkian Aurtitz ageri da zuritzen hasi berrikan.

mazio gehiago emanen dugu.

Erasun Urrezko aizkoratik kanpo

Urrezko Aizkoran, jokatatu berri diren finalurrekoetan Ander Erasun-

nek eta Juanjo Lopezek ez dute finalerako txartela lortu, Otaño eta Otaegiren aurka galdu ondotik. Lehia gogorra izan zen, azkeneko momentura arte ez baitzen finalerako bidea nor eskura-

tuko zuen argi izan. Azkenean, ordea, bertzeek irabazi zuten. Erran behar dago, hagitx txapelketa txukuna egin dutela Lopezek eta Erasunek, baina batez ere Erasunek. Zorionak, motel!

APARAN, S.A.
BRINKOLALA eta ZURAK

Metamina taulak
Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
Txapaz estalitako taulak
Entzomerak
Ate aruntak eta sukaike mobleendakoak
Pintura eta bernitzak
Bainurako mobleak eta osagaiak
KIT mobleak, esku-erremintak, etab.



Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

948 631 218
Kantillonberri 1, BERA
BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA

KATEA-BIKE



UDALA → EGUR LOTEEN ESKAERA

51 familiek egin dute egur lotea jasotzeko eskaera

Altzuri enpresak aterako du aurten egurra

Fermin ETXEKOLONEA

Egur loteak eskatzeko Udalak irekitako epea akitu da eta 51 etxebizitzetatik jaso da eskaera. Behin egurra zeinek nahi duen jakinda, hemendik aurrera, eguraldiak uzten duen neurrian, Udala egur loteak ateratzeaz arduratuko den enpresarekin harremanetan jarriko da lanak noiz hasi zehazteko.

Gogoratu, Udalak egindako enkantearen ondotik, Sunbillako Altzuri enpresari esleitu zizkiola lanak. Alkaxuri alderditik aterako ditu egur loteak eta egur to-

na bakoitzeko 29,10 euro kobratuko sa.

Lapurretekin erne

Gonbidatu gabeko bi-

sitariak dabilta azken aldian herri inguruan: lapurrak. Dagoeneko, auto bat lapurtu dute herritik eta kamioi ba-

ti gasolioa ere kendu diote.

Inguruko bertze herrietan ere izan dira lapurretak eta beraz,

kontuz ibili beharko dugu.

Isabel Elizalde Cedernako zuzendaria

Sortzez doneztebarrada bada ere, aspaldian gure herrian bizi da Isabel Elizalde. Berriki Cederna Garalur Elkarteko zuzendari berria izendatua izan da.

Jubilatuak Elgorriagan

Arkupeak jubilatuen elkarteko bazkide diren Aurtiz, Ituren, Elgorriaga eta Zubietako ki-deek besta eguna izanen dute martxoaren 4a, igandea. Goizean, bakoitzak bere herrietan meza entzun ondotik, bazkaria izanen dute Elgorriagako Hilarion jatetxean.



ARGAZKIA: JON MIKEL ARAGON

Ospitalerako bidean jaio da Oihana

Nonbait, Oihana ez zegoen Donostiako Ospitalera ailegatu arte esperoan egoteko, eta Jon Mikel eta Anuskari bertara ailegatzeko astirik eman gabe, atarian jaio zen. Zorionak gurasoei eta Aritz eta Urki anaiei eta ongietorri jaioberriari!

MERCHE
MODA HOMBRE

Giovani Valdi • Sandro Sellini • Caramelo gala
Serapio Mugika, 11 • 20302 IRUN • 943 612 626

www.capelettimercheirun.com

DONAMARIA

OSPAKIZUNAK → AKITU DIRA INAUTERIAK

Hotza ez da inauteriak ongi pasatzeko oztopo izan

Giro ederrean joan dira

Izaskun GOÑI TELLETXEA

Aurtengoan ere giro ederrean pasatu zaizkigu herriko inauteriak. Hainbat moztro ikusteko aukera izan dugu: deabruak, ijitoak, tenistak, sevillanak, pailazoak, mexikarrak, Super Mario... Hotz haundia egin arren, gazteak goizgoizetik animatu eta eskean ibili ziren auzoz-azuzo.

Ortziralarekin, bazkaldu eta ohiko ibilbidea egin zuten hama-

bortz bat lagunek. Larunbatean, ordea, talde haundiagoa elkartu zen, berrogei gazte inguru, eta umore ederrean ibili ziren Etxalarko Irune eta Itsaso musikariekin. Gaueko afarian ere jende aunitz elkartu zen Herriko Ostatuan, ehun bat lagun bai behintzat. Eta ondorengo besta ere luzatu egin zen, batzue- na bertzeena baino gehiago.

Igandean ere, bazkaltzerako orduan, gazte dezente elkartu zen eta arratsaldeko txokolatadara ere haur asko animatu ziren.



ARGAZKIAK: IZASKUN GOÑI

Kuadrilla ederra ibili da aurten ere etxez-etxe eskean.



ARGAZKIA: AMAIA ODRIOZOLA

Herria txuriz apaindua

Herriko txokoak txuri-txuri ikusi ditugu elurraren ondorioz. Egun batzuez elurra egin digu eta elurretan ibiltzeko aukera izan dugu, bai haurrek eta bai helduek ere.

Gure Haragia
Nuestra Carne

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariek eta merdi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratuetarako laguntzak
- Erpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta alorpenak
- Elbarritasun eta jubazio espedienteak
- Bidegaitasun planak eta sumentuak

artekari@artekari.com

LEZAKA: Siltxio, 77. beheko - Tel: 948 637 050 - Fax: 948 637 050
BUREATA: La Yifo, 4 - Tel: 948 133 328 - Fax: 948 133 713

Amaia
Fordi eta estimoa zentzon

%5eko DESKONTUA
Kontsumitzaileak

%10eko DESKONTUA
oparitan 30etik gora gurekin gaituzten

OSPAKIZUNAK → AKITU DIRA INAUTERIAK

Elurrarekin eta hotzarekin baina giro ederrean joan dira inauteriak

Gisa guztietako mozorroak ikusi dira etxez-etxekeo eskean

TTIPI-TTAPA

Hotzari eta elurrari gogor egin, eta otsailaren 4an eta 5ean inauteriak ospatu ziren Gaztelun. Mota guztietako mozorroak ikusi ziren: piratak, printzesak, pailazoak, oiloak, polizia eta presoak... Elurra eta tenperatura hagitz baxuak izan ziren, baina primeran joan ziren.

Larunbat arratsaldean, etxez-etxe pusketa bila ibili ziren Maialen, Leire eta Maitane trikitilariarekin, eta etxe batzuetan ohiko geldialdia egin eta merendu ederraz gozatu zuten. Lerro hauen bidez, eskerrak horregatik.

Gauean, berriz, afaria egin zen eta 45 bat lagun elkartu ziren, festa igande goizera arteluzatuz. Igandean, bazkaria eta afaria egin ziren.

Otsailaren 19an, bazkaria eta afaria egiteko zuten gaztetxoak so-bratutako puxkekin.



ARGAZKIA: KATIXA OTEIZA

Mozorro andana ikusi ziren inauterietan.

2012
Bardoak
nafarreako taldeakako bertso ekimena

BIGARRREN FASEA
MARTXOAREN 24. OHEZKORREN 28ak
18.00h

FINALA
MARTXOAREN 31ak LEITZAN
HIRU TALDE BIDERATZU BERTSOLARI

bertsozale
ttipi-ttapa

www.BARDOAK.com

LEGASA

HEZKUNTZA → HERRIKO ESKOLAK BADU ETORKIZUNA

Lau ikasle gehiago izanen dira hurrengo ikasturtean

Aurrematrikulazio kanpaina akitu da eskolan

TIPI-TTAPA

Aurtengo aurrematrikulazio kanpaina otsailaren 6tik 13ra bitarte izan da eta berri ona dugu, lau haur gehiago izanen baitira eskolan hurrengo ikasturtean.

Erran daiteke, eskolak lasaitu izpi bat hartu duela. Lau ikaslerekin egon zen 2009-2010 ikasturtean, baina haurrak jaiotzen ari zirela ikusirik, ez ixtea erabaki zuen Nafarroa-

ko Gobernuko Hezkuntza Departamentuak.

Legasako eskola ez da oraingoa. 1984-1985 ikasturtean ireki zen lehen aldiz, urte aunitzez itxita egon ondok. Gaur egun, Kukur aurkitzen den eskola berritzen ari zirela eta, Kapaineko eskola zaharrean 15 neska-mutil hasi ziren errandako urtean.

Bertan, maixu gazte-gaztea zen Karlosek hasiera eman zion hainbertze urteetan bere lantoki izan den eskola honi.

Ikasturte bat beranduago, hau da, 1985-1986an eskola berria estreinatu zuten 23



UTZITAKO ARGAZKIAK

Goiko argazkia eskola ireki zen 84-85 ikasturtekoa da eta beheitikoa aurtengoa.


ikaslek. Erran, eskolaren historian ikasturte horretan izan zela ikasle kopuru handiena.

Ikasle guttien izan zuten ikasturtea, ordea, lehen aipatu bezala,

2009-2010 izan zen, lau ikaslerekin.

Aurtengoan, berriz, zortzi ikasle dira dagoneko eta hurrengo urteari begira ere gorantz doa ikasle kopurua.

Heldu diren urteetarako aurreikuspena ere hagitz ona da. Urtero jaiotzak izaten ari dira eta horrek lasaitasuna ematen dio gure eskola ttikiari.



GRUPO TANATORIO TALDEA

IRACHE

MALDAERREKA S.L.

24 ORDUKO TELEFONOA

948581959 | 948637404

LEKUNBIHERRI | BERRA (SAN JOSE) | LESAMA | ELIZONDOKO (BAZTAN) | LETTZA | BETEJUI
DORNEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDOKO (BASTANDARRA)

TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRLUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA -
LOREAK, HILARRIAK, ESKOLAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK -

GIZARTEA → FRONTOIAK 30 URTE

Bertso berriak Aldapari jarriak

Markel LIZASOAIN

Hogeita hamar bete ditugu urte honetan frontonak, bertso hoiekin nolapait eman nahi niton zorionak; inez geroztik, herriko neskatx, mutiko, andre-gizonak zenbeste aldiz sanjuanetan hor elkarrekin egonak. Dagoia zutik egin ditzala oraindik urte sail onak.

Hameika koadro, idor ederra, hiru maila jarlekuak. Duela urte gutxi, gainera, patu zititen fokuak. Turixtak-eta hunara etortzin, hunatx zer diren juzkuak: "Herri txar honek a ze frontoia" egotten dire harrituak, aritzera ere majin bat aldiz ondoko herritakuak.

Zer ote ziren lehengo paretaxo laxo hartako izerdiak, potarria're hurbil omen zun elizako atariak. Esan diteke zaharra bota zuela fronton berriak, baino lehenio itzali ziren laxoko jokalaria, ezker paretak ekarri ditu geroztik pilotaria.

Erremintako gaztia eta eskuzko pilotaria, oraintxen ere joko luzeko balagoke koloria, inoren inbidirik gabeko koadrila dotoria, ezker paretan jarria dago indar guzia ordia, bizian martxak agintzen baitu hortik irabazbidia.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Arkupeak-ekoen bazkaria

Arkupeak elkarteko Saldias eta Beintza-Labaiengo bazkideek bazkaria egin zuten otsailaren 5ean Ostatuan. Hori baino lehen, meza izan zen aurten hildako lagunez omenez.

Pilotaren bat baldin badaile harata eta honata, maiz iduri du mintzo zarela oihartzuna aterata. Teilatua unge duzula edo

itxaxuratik arraka, asots haundiko izaten seitu eta, xirriki-xarraka, gure herriko hixtorin parte urte askoan, Aldapa.

EZKURRA

OSPAKIZUNAK → INAUTERIEN SEINALEA

Inauteririk ez, baina parranda bai

Afaria eta musika antolatu ditu Udalak martxoaren 3rako

Fernando ETXEBERRIA

TTIPI-TTAPAREN aurreko ale batean, aurtan ez zela inauteririk ospatuko aipatu genuen. Eta horrela izanen da, baina Udalak inauterien seinale gisa edo,

gutxienez festa egun bat antolatu nahi izan du.

Hala, Udalaren ekimenez, Barranka ostatuan afaria egingen da eta ondotik, parranda egiteko aukera izanen da Joxeanjel akordeoi-lariarekin, bildutako guztiei kanturako eta dantzatzeko aukera eskainiko baitie. Festa hau martxoaren 3an, larunbatarekin, izanen da, 21:00etatik aurrera.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Giro ederrean bazkaldu zuten jubilatuek otsailaren 12an Barranka ostatuan.

Herriko jubilatuen bazkaria

Herriko jubilatuek bazkaria egin zuten otsailaren 12an. Hasiera batean, otsailaren 5ean egitekoa zen, bai-

na egun horretan egingo elurraren eta ondorengo izotzaren ondorioz, astebete atzeratzea erabaki zen.

Hildako bazkideen aldeko mezaren ondotik, Barranka ostatuan

elkartu ziren, bazkari eder bat eginez eta kanpoko hotzari aurre egiteko berogailuaren goxotasunean, kanpoan hiru gradu zero azpitik neurtu baitzuten termometroko.

GOIZUETA

INAUTERIAK BUKATZEAR → OTSAILAREN 25A

Kontuak eginez larunbat honetan bukatuko dira aurtengo karnabalak

Eguerdiaren bazkaria eginen da eta ondotik poteo musikatua

TTIPI-TTAPA

Lerro hauek irakurterako, moztu saltsa azken txanpan sartua izan da. Joan den larunbateko kalderoaren kalejira, igandeko Zahagi Dantza, eta astelehenean eta astearte-ñoteko moztuaren joan-etorriak pasatuta, larunbat honetan kontuak egitea baino ez da gelditzen.

Larunbat honetan, hilak 25, eginen ditu kontuak Mozorroen Taldeak. Azken urteotan bezala, 14:00etan bazkaria eginen du eta ondotik, poteo musikatua izanen da herrian barna.

Larunbatekoaren ondotik, beste urtebetez egon beharko dugu hain eroak diren egunak ailegatzeko zain.

Biztanleriaren beherakada

Bistakoa da azken urteetan biztanleriak izan duen beherakada nabarmena, eta datuak dira horren lekuko. Adibide bat emate aldera, 1970ean 1.423 lagun ziren Goizuetan erroldatutakoak, eta 2011n,

berriz, 771 biztanle, 652 gutxiago.

Azken mende eta erdiko datuei erreparatu, biztanleriak 1970ean jo zuen goia, 1.423 biztanlerekin. Inoizko kopururik txikiena, berriaz, joan den urteko urtarrilean zenbatu zen, 771 lagunekin. Ordukoak dira Estatistika Institutuak emandako datu berriak. Ondoko taulan populazioaren bilakaera jasota da.

URTEA	BIZTANLEAK
1877	998
1900	1.104
1930	1.407
1950	1.312
1970	1.423
1996	949
2000	903
2005	814
2011	771



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

Hotza bai, baina giro ederra ere bai Santa Ageda bezperan

Frexko ez ezik, hotz galanta ere egin zuen Santa Ageda bezperan. Baina elur artean bazen ere, 30 bat lagun elkartu ziren koplak kantari ibiltzeko. Joxe Manuel Oizabalen ordeaz, bertsolari lana ederki egin zuen Esteban Arozenak, eta Josu Garmendia eta biak fin moldatu ziren Juan Antonio Lekuonaren aginduetara.



ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

Material berriak pilotari gaztetxoentzako

Gure etorkizuneko pilotariak material berria jaso dute berriki, argazkian ageri diren pilotako boltsa beltzak eta gerriko gorri-urdin berriak, hain zuzen.



OSPAKIZUNAK → BUKATU DIRA INAUTERIAK

Aurtengo inauteriak historikoak izan dira

Antzerkian bi emakumezko parte hartu dute lehenengo aldiz

Maider ANSA

Bi arrazoi baditugu aurtengo inauteriak historikoak izan direla esateko. Herri guztiari buelta eman ondoren, inortok ere ez omen zuen halako inauteri egun hotzik ezagutu. Ez da harritzekoa. Zazpi gradu zero azpiko temperaturarekin abiatu ziren zomorroak Surotik eta herrira iristerako ez zen giroa asko berotu. Hala ere, umore ederrean egin zen puska biltzea.

Historikoa izan zen beste kontua zahagi



ARGAZKIA: MAIDER ANSA

Zazpi gradu zeropetik zirela hasi zuten zomorroek etxez-etxeko eskea.

dantza izan zen. Hasi-er batean, dantzari guztiak gizonetzkoak izaten ziren, baita atsoa eta agurea pertsonaiak antzetzten zi-

tuztenak ere. Urte asko dira, ordea, neskak dantzari lanetan hasi zirela. Aurtengoan, antzerkia egiten bi emakumezko izan ditugu.

Maitane Sarobe eta Maitane Legarreta. Bi emakumezko lehen aldiz, zahagi dantzako pertsonaia moduan. Bejondeizuela!

HARPIDETZA

TTIPI-TTAPA-arentzako dirulaguntzak onartu dituzte Arano, Areso eta Goizuetan

TTIPI-TTAPA

Arano, Areso eta Goizuetako Udalek onartu dituzte TTIPI-TTAPA-arentzako dirulaguntzak. Aranoko Udalak 657,06 euro emanen ditu, Goizuetakoak 3.620,82 euro eta Aresokoak 852,78 euro. Hala, herritarrek doan jasoko dute aurtengoa ere aldizkaria etxean. Dena den, Arano eta Goizuetan bereziki, harpidetza onartu aurretik, Udalarari jakinarazi behar harko zaio eskaera, aldizkaria etxean jaso nahi duenak Udalaren baldintzak betetzen dituen ala ez jakiteko, hau da, herriaren errol-datua egotea.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea
Tafalla, 15 • IRINEA • 943 230 634

edredoi fundak • edredoi nordikoak
ohe estalkiak • albornoak
maindireak • mantelak
kuxinak • toailak

MERKEALDIA

LEITZA

GIZARTEA → LEITZATIK ARESORA

Egin nahi den goi tentsioko lineaz bilkura egingen da martxoaren 7an

Proiektuaren aurka plataforma osatu nahi da

JM BARRIOLA

Leitzatik Areso aldera, goi tentsioko linea pasa nahi du Red Eléctrica de España (REE S.A.). Hori da behintzat aztertzen ari den bideetako bat. Eraso te auzotik Gorriteneko belatsorotik barrena Guratz zeharkatuz Aresora. Castejondik abiatu eta Ezkiora (Gipuzkoa) joanen litzateke linea.

Goi tentsioko lineak 400 kV-ko tentsioa izanendu, 120 kmko luzera eta bere eragin eremuan 166 udalari hartzen ditu, 118 Nafarroan eta 48 Gipuzkoan. Linea honen dimentsioak hurrengoak dira: 42/46 metroko altuerako dorreak –kasu batzuetan 81koak–, bata bestearengandik 400/500 metrora, lau ormigoizko oinarriekin eutsiak, beraien artean 5,90 eta 10,14 metrora daudela.

Bere inguruan (500 metro alde bakoitzera) zuhaitz guztiak bota eta berriak landatzea edota etxe eta industria azpiegiturak eraikitzea debekatuta geratuko litzateke. Azken datu honi dagokionez, aipatzekoa da, aurkeztutako alternatiben artean gehiengoak ez duela baldintza hau betetzen, hau da, 500 metro baino gutxiagora herri eremuak aurkitzea.

Proiektu honek gure herriari, eta gainontzekoei, ez dio inolako onura sozioekonomikorik ekarriko, baina ingurumen eta osasun aldetik ondorioak oso kaltegarriak izan daitezke, kutsadura elektromagnetikoa dela eta, eta ingurumen aldetik gure basoak eta mendiak txikituz. Horrela azaldu zuten otsailaren 2an udaletxean egin zen bileran. Horregatik, linea honek ekarriko dituen arazoez kontzientziazteko, lantaldia osatuko da herrian, egitasmoaren aurka presioa egiteko eta jendea kontzientziazteko. Martxoaren 7an beste bilera bat deitu da herrian autopista elektrikoaren aurka plataforma osatzeko.


Emagin zerbitzua

Emagin zerbitzua eskaintzen hasiko da eskualdean eta kontsulta martxoaren 26an izanen da goiz osoan. Zerbitzu honekin, haurdun dauden ohiko errebisioez gain, sexualitateari buruzko informazioa emanen da, antisorgailuei buruzko informazioa eta zalan-tzak argitu, prebentzioa, menopausia, zitologia eta edozein zalantza argitzen saiatuko da.

Txanda Etxarri-Aranatzen hartu behar da (948 567063), eta hilean behin etorriko da Aresoko kontsultara. Leitzako osasun etxean leku egokirik ez dagoenez, Aresoko kontsultan eskaintzea egoki ikusi da.

Manuel Lasarte bertsolari haundia hil da


Manuel Lasarte bertsolari haundia hil zaigu otsailaren 12an. Frankia baserrian jaio zen 1927ko abenduaren 12an, eta beti Leitza bere bihotzeko txoko batean eraman zuen. Plaza gizon bikaina eta estimatua bere garaian, 40 urte inguru eman zituen plazaz-plaza. 18rekin hasi zen bertsoan, Baserri eta Uztapiderekin. Gaztetan Gipuzkoako Aia herrira joan zen bizitzera familiarekin eta gerora, Orion errementari aritu zen lanean, plazaz-plaza bertsoan jendea liluratuz ibiltzen zen bitartean. Fama haundia hartuz joan zen, bere garaiko Euskal Herriko bertsolari estimatuenetakoa egin arte. Gerora, osasun arazoak zirela eta, plazak utzi eta idazteari ekin zion, liburu mordoxka kaleratuz. Erreferente bihurtu zen bertsolari munduan bere teknika eta euskararen kalitateagatik. Leitza kale baten izena eman zitzaion bere omenez.



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

Arkupeak-ekoen bazkaria

Arkupeak elkarteko Areso eta Leitzako bazkideek bazkaria egin zuten otsailaren 12an Leitza. Aurretik meza izan zen aurten hildako lagunaren omenez eta bazkaldutik, dantzaldia. Hori baino lehen, hilaren 10ean, mus txapelketa jokatu zuten.



ARGAZKIAK: NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA

Leitzaundi bigarren fasean

Bardoak 2012 Nafarroako taldekako bertsolari txapelketaren saio bat Leitza egin zen, eta etxeko taldeak lortu zuen aurrera egitea. Iñigo Ibarra, Iñigo Sagastibeltza eta Migel Mari Elosegik osatutako Leitzaundi taldeak saioa irabazita, bi puntu lortu eta bigarren fasean ariko dira. Saioa Aurrera elkartaren egin zen eta 80 bat bertsozale bildu ziren. Otsailaren 17an, Leitza eta Leitzarrak herriko beste taldea Atekabeltzen aritzekoa zen Jituk taldearen aurka. Talde hau Joxema Leitza, Mikel Azpiroz eta Joseluis Barberiak osatzen dute. Finala ere Leitza jokatu da martxoaren 31n.

Ipar eski ikastaroa
Mendibil Mendi Taldeak Ipar-eski ikastaroa

antolatuko du larunbat honetarako. Ume eta helduentzat izanen da Som-

porten. Informazio gehiagorako: www.blogak.com/mendibilaurera.

GIZARTEA → ESKUALDE MAILAKO ZERBITZUA

Emagin zerbitzua eskaintzen hasiko dira martxoan osasun etxean

Martxoaren 26an izanen da lehen kontsulta

Juana Mari SAIZAR

Leitza, Goizueta, Arano eta Aresoko emakumeentzat emagin zerbitzua jarriko da herriko mediku kontsultan. Kontsulta prest dago beharrezko materialekin eta lehenengo kontsulta martxoaren 26an izango da. Hortik aurrera hilean behin etorriko

da gure eskualdera. Hala ere, ordua eskatzeko orain arte bezala, Etxarri Aranatzera deitzen jarraitu beharko da.

Argindar arazoak

Azken aldian hainbat arazo sortu ditu argindarraren joan-etorriak. Elizako erlojua izorratu egin da eta WiFi sarea- ren indarra ere gaizki dabil.

WiFiari dagokionez, gainera, Udala herrian inkesta egiten ari da,



ARGAZKIA: JAIONE OLAZABAL

Hotzak eta elurrak apaingarri politak utzi dituzte

Azken aldian izandako eguraldi hotzak argazki politak ere utzi dizkigu, begiratu bestela, argazkiko burruntziei.

egun WiFiko linea bakarra baitago herriarentzat eta askotan motel doala ikusirik, bigarren linea baten beharra ikusten baitu. Horregatik bigarren linea bat jartzeari eta noski, horrek ekarriko lukeen kuota bikoizteari buruz, he-

rritarrek zein iritzi duten jakin nahi du.

Pestak prestatzen

Inauteriak bukatu ondoren, herriko pestei begira jarri da pesta batzordea. Horretarako pestetako bilera deitu du ostiral honetarako,

otsailak 24, 19:30ean udaletxean. Alde bate- tik, lehengo urteko pes- ten balantzea eta diru kontuak ikusi eta beste- tik, aurtengo pestak an- tolatzen hasiko dira, ba- tez ere, musikaren gaia. Beraz, azaldu ahal du- zuen guztiek!

LEITZA

GIZARTEA → MARTXOAREN 2TIK 4RA EMAKUME ABERTZALEEN TOPAKETAK

Dena prest Euskal Herriko feminista abertzaleak biltzeko

JM BARRIOLA

Feminista abertzaleen topaketak izanen dira martxoaren 2, 3 eta 4an, Euskal Herriko Bilgune Feministak antolatuta. Hamargarren urteurrena ospatuko dute, Leitza bertan egin ziren topaketa batzuen ondorioz sortu baitzen Bilgune Feminista. Egun haue- tan mintegi eta hitzaldi morderoa antolatu dituzte, baita ere aisialdirako unetxoak ere.

MARTXOAK 2, OSTIRALA

- 16:00-17:00. Izen-ema- tea zineman.
- 17:30-18:00. Harrera.

- 18:00-20:00. Mahai-in- gurua eta eztabaida: *pro- zesu demokratikoa eta emakumeon hitza: han eta hemen.*

- 21:00. Aferia eskolan.
- 22:30. Anari eta Napo- ka Hiriaren kontzertuak Atekabeltzen.

MARTXOAK 3, LARUNBATA

- 09:30. Izen-ematea zi- neman.
- 10:00-12:00. Mahai-in- gurua: *eredu ekonomi- ko eta sozial feminista eraikitze bidean; gaurda- nik, urratsak emanez.*
- 12:30-14:00. Eztabai- da tailerrak: Zaintza, eko- nomiaren oinarri; Eli-

kadura subiranotasuna- ren praktikak Euskal He- rriari; Prostituzioari be- girada feministak; Gure gorputza osasuntsu; llunpetik argira, emaku- me presoen errealitatea kontagai; eta Aliantza fe- ministak mugaz gandi.- 14:30-16:00. Bazkaria.
- 15:30-16:00. Teknolo- gia berriak: eraldaketa- rako tresnak.
- 16:00-20:00. Tailerrak: Hezkidetzeta lau haizeta- ra; PAF Praktika Artisti- ko Feminista; Autode- fentsa Feminista; Emakume kazetari-sortzaile feministen asanblada; Sexualitatearen izaera

politikoaz hausnarketa.

- 20:00. triki-bertso-po- teo feminista.
- 21:30. Aferia eskolan.
- 23:00-04:00. Festa Ate- kabeltz gaztetxean.

MARTXOAK 4, IGANDEA

- 09:30. Izen-ematea zi- neman.
- 10:00-12:30. Mahai- ingurua: *Independentzia dugu bidea, eta helbu- rua: Euskal Herria femi- nista.*
- 13:00. Ondorioen kon- taketa eta ekitaldi irekia. Bestetik, ostiralean (19:00-21:00) eta larun- batean (16:00-20:00) ar- telanen erakusketa ego- nen da Atekabeltzen. Izen-emateko eta in- formazio gehiagorako: *2012topaketafeministak.wordpress.com*-en aur- ki daiteke. Aipatu, haur- tzaindegi zerbitzua ere izanen dela.

Larramendi Saria

Patziku Perurenakira- bazi du Manuel Larra- mendi Kultur Bazkunak lehenbizikoz antolatuta- ko Manuel Larramendi lkerketa Saria. *Unaia gal- du eta artzaia ugaldu* iker- keta egitasmoagatik eman diote saria eta otsailaren 8an 6.000 eu- roko saria hartu zuen An- doainen.

Atekarock sarrerak

Atekarock jaialdiko sarrerak salgai daude, aurretik 14 eurotan eta bertan 16 eurotan: To- rrean eta Elizondo (Txo- koto), Doneztebe (Titi), Lesaka (Arrano), Altsasu (Lurrzappi), Iruñea (Kar- mengo herrikoa), Irurtzun (Pikuxar), Lekunberri (Elosta), Villabona (Ma- xola), Andoain (Lanbroa), Tolosa (Denak) eta *ate- karock.blogspot.com*-en.

BAZTAN

UDALA → 2012KO DIRUSARRERAK ETA IRTEERAK

8,5 milioi euroko aurrekontua onartu du Udalak

laz baino %4,7 handiagoa da, baina gastu arrunta murriztu egin dute

DATUA

67.300

EURO

bideratuko ditu Udalak zahar etxean biomasa galdara paratzeko.

TTIPI-TTAPA

8.462.631 euroko aurrekontua izanen du Udalak aurten. Urtarrilaren 18ko osoko bilkuran Bildu eta Ezkerraren aldeko botoekin eman zitzaion hasierako onespena aurrekontuari. Aurrekontua joan den urteko baino %4,7 handiagoa da inbertsioen atalagatik, gastu arrunta murriztu egin baitu Udalak.

GASTU ARRUNTA BEHEITI

Bilduk urtarileko berripaperean dioenez, «gastu arrunta murriztu eta berrantolatu ondok», zerbitzu sozialetako lantalderako hiru langile gehiago kontratatu dira: administrari bat (orain arte lanaldi erdia), gizarte langile bat eta hezitzaile bat. «Justizia eta berdintasun sozialaren aldeko gure konpromisoarekin bat eginez eta jendartean gertatzen diren bidegabekeriak, bazterketak eta arazoak gaitzetzeko egindako apustua izan dela» jakinarazi dute.

Gisa berean, aurrekontuetan berdintasun teknikaria kontratatzekeko diru partida ere onartu da, baina Bilduk argitu duenez, «Nafarroako Gobernua dagokigun dirulaguntza ematen badigu kontratazio hori egiten ahalko dugu». Aipa-

tutako kontratazioak udaleko gastu arruntaren parte dira, eta hala ere, «orotara aitzineko urtean baino 100.000 euro guttiagokoa izanen dela», dio Bilduk.

INBERTSIOETAN GEHIAGO

Inbertsioen inguruan, Bilduk azaldu duenez, hiru-urteko plana gauzatzeko aitzineko Udalak onartutako diru-kopurua eragin du aurrekontuetan izan den hazkuntza. Aurten, ordea, «Udalak pilaturik duen zorreratik maileguak eskatzeko aukera galera izan du», dio Bilduk, «eta horrek inbertsioen atala guztiz baldintzatu du».

Gainerakoan, Giltxaurdi kirol instalazioak enpresa publiko baten bidez kudeatzeko 35.000 euro bideratuko dira; Loizuhiltegiaren hobekuntza lanak egiteko 17.000 euro. Arizkun eta Azpilkuetako eskolen teiatuak konpontzea ere aurreikusita da, baita uholdeen kalteak konpontzea ere. Zahar etxean biomasa galdara paratzeko 67.300 euro onartu dira eta Zaldubiko industrialdean Udalak duen mila metro koadroko lurzatia salduz gero, Gartzaingo batzar-



ARGAZKIA: LANDER SANTAMARIA

Animaliekin terapiak lantzen hasiak dira zahar etxean

Ohiko terapien lagungarri gisa, animaliak erabiliz bertze terapia batzuk lantzen hasi dira Elizondoko zahar etxean, adinekoen ahalmen fisiko, kognitibo eta sozialak mantentzeko eta hobetzeko. Oraingoan, programa lantzeko zenbait kanario eta Labrador izeneko labrador arrazako zakurkumea dauzkate.

tokia eta Udalaren atokak eta gauzak uzteko nabea egiten dira.

BERDINTASUN BATZORDEA

Udalak berdintasun batzordea ere sortu du, Bilduren arabera, «emaztekiek jasaten duten egiturazko menperaketa gaitzetzeko, gizonki eta emaztekiek artean berdintasuna lortuz». Bertzeak bertze, helburuok izanen ditu: «indarkeria sexista borrokatu, emaztekiek partehartzeko soziorpolitikoa bulkatu, emaztekiek txokoa edo espazio publikoak eratu...».

HIRIGINTZA PLANA

LAEE edo Lurraldearen Antolaketa Estrategia eta Ereduak ere mintzo da Bildu. Gogoratu duenez, aitzineko legealdian Udal Plan Orokor (UPO) berria idazteko lanak esleitu ziren. Hirigintza plan horrek Baztango hiri garapena ondoko hamar urteetan nolako izanen den arautuko luke: etxeak non egin, tipologia, jarduerak ekonomikoak non ezarri, komunikazio azpiegiturak, zerbitzuak, hornidurak...

Planaren lehendabiziko zatia LAEE da eta horren gainean egiten da arauak zehazten dituen Udal Plana. Udal berria osatu zenerako, idazke-

ta lanak adjudikatuak dituen enpresak LAEE egina zuten, nahiz eta oraindik ez duen hasierako onespenik jaso.

Bilduk, bere aldetik, LAEE hori geldiaraztea proposatu du, eta «partehartzeko prozesu herritar baten bidez LAEE berri-daztea». Hain zuzen, prozesu horren aurkezpena otsailaren 4an egin zen Arizkunenean. Gaiaren harira, kuartelka bi bilera txanda egin nahi dira, «herritar guztiek parte hartzeko aukera izan dezaten». Baztango eragile sektorialekin foroak ere osatuko da, «antolatutik dauden herritarrek interes sektorialetatik aporteratzeko». Erakusketa dinamikoak ere ikusgai dago Elizondoko plazako

eraikinean, «hasieran, Baztanen hiri-garapena erakutsiko duten argazki zaharrek eta ondok, LAEEren proposamenekin». Informazioa web orritik ere eskuratzen ahalko dela jakinarazi du Bilduk. Eta behin informazio guztia esku artean, hirigintza plana idazteko kontratua duen enpresak LAEE berridazte beharko luke.

Prat Espainiaratzeko erabakia

Frantziako Poliziak urtarilaren 25ean Urruñan (Lapurdi) atxilotu zuen Ernesto Prat Espainiaratzea erabaki du Paueko Auzitegiak, Espainiako Auzitegi Nazionalaren euroagindua onartzeko.



GIZARTEA → MUGIKORTASUN ARLOA

Badenak paratzeko eskaera egingen dio Udalak Nafarroako Gobernuari

Autoen abiadura moteldu nahi da

TTIPI-TTAPA

Udala mugikortasun arloan egiten ari den kanpainaren haritik, eta herri-guneetan autoen abiadura moteltzeko, hainbat tokitan badenak egiteko eskatuko dio Tokiko Gobernu Batzordeak Nafarroako Gobernuari. Puntu hauekarako egin da eskaera: **Oronozen** farmazia parean, mediku kontsultategiaren parean eta elizako atearren parean; **Iruritan** Arraioztik Elizondora bidean malda hasieran, plazan, farmazian eta Iruritatik

Lekarozerako bidean; **Arizkun**en plazan; eta **Erratzun** Aleman zerrategiaren parean, Baigorriarako bidean herritik ateratzeko zubian, eta Gorostapolon, eskola parean.

Bertzetik, Bagordiko zabortegean lorategietako erreto eta hondakin bejelalak botatze gain, edozein obra-hondakin eta zabor botatzen dela ikusita, Bagordiko zabortegea zirga batekin ixtea erabaki du Tokiko Gobernu Batzordeak. Hartara, baimenak dutenek lorategietako hondakinak bota ahal izanen dituzte. 1.500 eurotan egingen da.

Benito Lertxundik kontzertua eskainiko du apirilaren 28an Elizondon

Benito Lertxundi zuzenean aditzeko aukera izanen da Elizondoko frontoian, apirilaren 28an. Eguna baino lehenagotik, sarrerak 18 eurotan salduko dira, Elizondoko Antxitonea trinketean, Doneztebeko Titi ostatuan, Arraiozko Nafar Mendin eta Leitzako Maimur dendan. Egun berean, 20 eurotan erosten ahalko dira.



ANTXITONEA Real Estate

Benito Lertxundi

Benito Lertxundi 16, Elizondo • 948 591 807 • 948 581 853
benito@antxitonea.com • www.antxitonea.com



ARGAZKIA: ELIZONDOKO HERRIA

Auzolanari erantzun bikaina eman diote Elizondon

Hotzari gogor eginez, 8,5 gradu zeropetik markatu zituen termometroak, 120 lagun inguruk erantzun zioten Elizondoko Herriko Etxeak egindako auzolan deialdiari. Tartean ziren Ikastolako kideak ere, antolatu ohi duen Zuhaitzaren Eguna harat bideratu baitzuen. 2011ko ekaineko batzarrean, 4,07 hektareako landaketa erabaki zen Elizondon, 6.000 zuhaitz landatzea, horietatik %80 bertako haritzak eta gainerrakoak fruta zuhaitzak. Bortz urtez, 37.000 euro inguruko inbertsioa egin nahi da eta Europar Batasunetik %80ko dirulaguntza lortu da. Baina ahal dena auzolanegitea erabaki zenez, halaxe egin zuten hilaren 12an. Gosari eder baten ondoren akitu zen auzolana, eta Herriko Etxetik «arras balorazio positiboa» egin dute: «urteak dira Elizondon ez dela Herriko Etxeak deituriko gisako auzolanik egin».



ARGAZKIA: NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA

Bardoak 2012ko hiru saio Baztanen

Bardoak 2012 Nafarroako taldekako Bertsolari Txapelketaren barne, hainbat saio jokatu dira Baztanen. Otsailaren 3an egin zen lehendabizikoa Iruritan, eta Baztango Bar-ideak eta Berako Beratarak aritu ziren, 50 entzuleren aitzinean. Etxekoek eraman zuten puntua. Otsailaren 4an Elizondon egin zen bertze saioa eta 80 bat lagun hurbildu ziren. Bertsotan, Baztango Lapanatuek taldea –argazkian– eta Larraungo Hautsi ta barratu aritu ziren. Lapanatuek taldeak azken orduko aldaketa bat egin behar izan zuen, eta Jon Barberenak ezin izan zuenez aritu, haren ordean Julen Zelaieta beratarra aritu zen. Baztandarrek irabazi zuten saioa. Otsailaren 11n, berriz, Anizko elkartearen hirugarren saio bat jokatu zen: Malerreka eta Orozko Erauntsi taldearen eta Lesakako Altzuri, Edurnezuri eta amaordeak taldearen artean. Afaria eta ondorengo bertso saioan 60 lagun elkartu ziren eta azkenean, Erauntsi taldeak eraman zuen jokoan zegoen puntua.

Ba al zenekien...

Martxoaren 24an Eskuaraz Eguna egingen dutela Iruritan? Dantzariak, bertsolariak, Anje Duhalderekin kantaldia eta Ufestuek, Bizardunak eta Trikidantzen kontzertuak izanen dira. Xehetasun gehiago hurrengo TTIPI-TTAPAn emanen dugu.

BAZTAN

EUSKARA → EUSKARA BATZORDEAREN KANPAINA

Euskal abizenak euskal grafiaz jartzeko kanpaina arras harrera ona izaten ari da

Erdaraz dituztenei gutuna bidali zaie euskaratzeko zer egin behar duten azalduz

TTIPI-TTAPA

Joan den urte hondarrean, euskal abizenak euskal grafiaz paratze-ko kanpaina martxan paratzea erabaki zuen Euskara Batzordeak. Horrela egin zuen, eta ekimena arras erantzun onajatzotzen ari da. Halaxe adierazi dute Euskara Batzordetik: «aski harrera ona izaten ari da kanpaina, eta jendea Udalerat heldu da abizena aldatzeko zer egin behar den galdezka».

Maitane Maritorea zinegotziak jakinarazi duenez, argibideak atezaintzan edo euskara zerbitzuan jasoko ditu abizena aldatu nahi duenak. Baina horrez gain, joan den astean gutun bat bidaltzeko aitzaien egoera horretan dauden guztiei, hau da, eus-

kal abizenak erdaraz idatziaz dituzten baztandareei, abizena aldatu nahi izanez gero, zer pausu jarraitu behar dituzten jakiteko.

Eguzkilorek antolatutako ikastaroak

Hilabetean behin elkar(g)uneak antolatzen segitzen du Eguzkilore emakumeen taldeak. Hilabeteko bigarren astelehenetan izaten dira Arizkunenea Kultur Etxeko bigarren solairuan, 19:00etatik 20:30era. Gai zehatz bati lotutako jakintzak elkar trukatzeko uneak antolatzea dute helburu, gisa honetara, gaiarekiko interesa dutenak elkartu eta ongi pasatu bidenabarikasiz. Elkar(g)une hauek dohai-nik dira.

Hurrengo martxoaren 12an izanen da eta baratze ekologikoaz ariko dira, familia baratze lantzen duen Joseren eskutik. Maiatzaren 14an, berriz, *udan osasuna bizkortzen* gaiaz ariko dira, Mirentxu medikuarekin.



ARGAZKIAK: ARKUPEAK ELKARTEA

Arkupeak-ekoen bazkariak

Arkupeak jubilatuen elkarteko kideek ospakizunak izan dituzte hilabete honetan. Otsailaren 8an eta 12an, adibidez, Arizkun, Erratzu, Azpilkueta, Amaiur, Urdazubi eta Zugarramurdiko Arkupeak-eko bazkideak Arizkun elkartu ziren, lehendabiziko egunean mus txapelketa jokatzeko eta bigarrenan meza entzun ondotik, bazkari eder bat egiteko. Elizondo, Elbete, Lekaroz, Gartzain eta Iurretako herrietakoak, berriz, otsailaren 9an eta 10ean Elizondon bildu ziren, ortzegunean mus txapelketa jokatzeko eta ortziralean meza entzun eta bazkaria egiteko. Eta Almandoz, Berroeta, Aniz, Ziga, Arraioz, Oronoz, Oieregi, NARBARTETA eta Legasako kideek otsailaren 3an eta 4an egin zuten hitzordua, Oronozen, hilaren 3an mus txapelketa jokatzeko eta biharamunean, meza entzun, bazkaldu eta dantzan aritzeko.

Horiek baino lehen, neguan, puntu-egiten ikasi dutenek elkartzeko asmoa dute, arroparen bat egiteko edo.

Enplegu tailerren arbasoen aztarnak aztergai

Gure eskualdeko eta eskualdez kanpoko hainbat langabek Cederna Garalur elkarteak eta hainbat Udalek (tartean Baztangoa) elkarlanean egin zuten enplegu tailerren eman zuten izena. Bizatitan banatu zen tailer hori, alde teorikoa eta praktikoa. Berriki,

teorikoa akitutzat eman dute eta orain, praktikoa-ekin hasi dira. Baztanen kasuan, bi lagun ariko dira enplegu tailerren eta egin beharreko proiektuak izenburu hauxe du: *gure arbasoen aztarnak*. Proiektu honekin, berte gauzen artean, Baztango herrietan dauden errota, kisulabe, lixutoki eta berte aztertu behar dituzte, ondotik, ibilbide gisako bat egiteko. Baztanen hedadura haundia dela ikusita, lau ibilbide egingen dira, kuartel bakoitzeko ibilbide bat. Gisa honetara, kuartelka ibilbideak anto-

latuko dituzte, ondare bakoitzaren argazkiarekin eta deskribapena, egoera, kokapena, bertara ailegatzeko egin beharreko ibilbidea, ibilbidearen zailtasun/eraztasuna eta abarren berri emanaz.

Otsailaren 13an hasi ziren tailer honekin eta apirilaren 20ra bitarte ariko dira.

Erakusketa

Udalaren ekimenez, *birziklatuz* ikastaroko ikasleen lanak ikusgai paratuko dira Arizkunenea Kultur Etxean, martxoaren 5etik 20ra.



AROSZTEGIA → NABAI ALKATETZARI ZUZENDU ZAIO

Aroztegiko proiektuaren tramitazioan gauzak argitzeko eskatu du NaBaik

NaBaik duen interesa salatu du Aroztegia eta gero zer? taldeak

TTIPI-TTAPA

Aroztegia Jauregiko proiektua tarteko, udal planean egindako aldaketaren txosteneko tramitazioei buruz galdetu dio NaBaik alkatetzari. Udal planaren aldaketa onartu zenetik, egin denaz erreposoa egin du NaBaik. Eta honi bertze ohar batekin erantzun dio Aroztegia eta gero zer? plataformak.

NaBaik gogoratu duenez, 2010ean onartu zen Aroztegia Jauregiaren inguruan udal planaren aldaketa egitea. 2011ko maiatzaren 2an, Konpentsazio Batzordearen estatutuen hasierako onarpena argitaratu zen NAO Nafarroako Aldizkari Ofizialean, Tokiko Udal Gobernu Batzordeak martxoaren 22an hasierako onarpena emandakoan. NaBairen arabera, «Udalaren behin betiko onarpena emateko legezko epea pasatu» egin zen, eta promotoreak berak bultzatuta, irailaren 30ean udal planean egindako aldaketaren ondoriozko Konpentsazio Batzordearen estatutuen behin betiko onarpena argitaratu zen NAO.

NaBaik oharrean dioenez, «2011ko azaroaren 21ean Konpentsazio Batzordea eratu zen Elizondoko notariotzan, eta Udalaren aldetik ez zen ordezkaririk joan deialdi horretara».

Hori baino lehen, 2011ko abuztuan Aroztegia Jauregiko promotoreak udal planaren aldaketaren inguruko plan partziala udal erregistroan aurkeztu zuela dio NaBaik, Udalarik hasierako onarpena eskatuz. «Azaroaren 18an plan partzial horren hasierako onarpena Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Berritoki ere, promotoreak egin zuen argitaratzeko eskaera, legezko epean Udalak ez zuelako hasierako onarpenaren ebazpenik eman».

Hala, NaBaik hori guztia argitzeko eskatu dio alkatetzari: Konpentsazio Batzordea eratzeko bilerara zergatik ez zen joan eta Konpentsazio Batzordearen estatutuak behin betiko onartzeko eta plan partzialari hasierako onarpena emateko legezko epeetan «zergatik ez duen deus erran» azaltzeko erranez. «Administrazioaren isiltasun



Aroztegiko jauregian hotela, golf-zelaia eta 252 etxebizitza egin nahi dituzte.

NABAI-K ALKATETZARI
«Administrazioaren isiltasun hori espediente honekin bakarrik pasatu ote den edo gehiagotan gertatu ote den jakin nahi dugu»

NaBai

NABAI-RI KRITIKA
«Espekulatzaila da Baztanen dagoen lurzoru urbanizagarri guztiarekin 40 hektarea gehiago urbanizagarri kalifikatzea eta bizitzen %38 hutsik edo ia erabili gabe egonik 252 bizitzako proiektua baimentzea»

Aroztegia eta gero zer?

hori espediente honekin bakarrik edo gehiagotan gertatu ote den argitzeko» ere galdegin du.

AROSZTEGIA ETA GERO ZER?-EN OHARRA

Aroztegia eta gero zer? taldeak NaBaik Aroztegiko egitasmo «espekulatioan» duen interesa bertze behin salatu du. Horren aitzinean,

Ba al zenekien...

İñaki Elizalderen *Baztan* filma Donostiako Zinemaldian estreina daitekeela? Produktoreen helburua irailean eginen den jaialdian aurkezteko omen da. Dena den, filmaren behin betiko kopia heldu den astean, prest izanen omen dute.

«Lekarozko herria herri-galdeketa egitasmo horren kontra agertu zela» oroitarazi du. Eta gaineratu duenez, «NaBaik alkatetzan zegoelarik, herritarren iritzia kasurik egin gabe, nahiago izan zuen iruzur kasuetan nahasirik sustatzaileekin bat egin eta proiektua gauzatzeko baimenak eman».

Promotoreen artean, «iruzurgileez gain, Caixa Galicia dagoela» dio Aroztegia eta gero zer? taldeak, «bere inbertsio inbentarioengatik katakrak egin hurren dagoen auzerri kutxa». Taldearen tzat bistakoa da Aroztegia zer egin nahi duten: «euren interes hutserako proiektu espekulatioa». Bere irudiko, espekulatioa da «Baztanen dagoen lurzoru urbanizagarri guztiarekin 40 hektarea gehiago urbanizagarri kalifikatzea eta Baztango bizitzen %38

hutsik edo ia erabili gabe egonik 252 bizitzako proiektu berria baimentzea». Proiektua egitera, Lekarozen 756 biztanleko auzo berria eginen luketeela gogoratu du, «eta horrek Baztango egitura guztia deseginen lukeela».

Hori guztia baimendu edo baimentzeko egina hanean ibili izana leporatu dio NaBairi, eta «oraino, horren gibeletik dabilena», dio. «Bertze behin koalizio horrek batere interes sozialik gabeko proiektu honetan duen konpromisoa» kritikatu du. «Elizondoko plazak eraikinean gastatu zituzten 800.000 euroak ikusirik, interesik gabeko proiektuetan duen konpromisoak dagoeneko ez gaitu batere harrizten», adierazi du plataformak, eta «egitasmo espekulatioa gelditzeko» eskatu du.

ERDIZ

ARKITEKTOAK + ABOKATUAK
ANOLKULARITZA ARHITEKTONIKO ETA JURIDIKOA

TXOSTENAK · PROIEKTUAK
OBRA ZUZENDARITZAK · ZAHARBERBITZAK
ANOLKULARITZA JURIDIKOA · EREKETA MOTA GUZTIAK

TELEFONO ARRETA: 17:00etatik 20:00etara
astnehondik ostirategi

Barañan Etorbidea, 17 - 3. Bulegoa - IRUÑEA

BAZTAN

ARRAIOZ → HIPERMERKATUKO LAN KONTUAK

Beraien lanpostuetan «gustura» daudela diote Nafar Mendiko langile batzuek

LABen salaketei ohar batekin erantzun diote

TIPI-TTAPA

Arraiozko Simply-Nafar Mendi hipermerkatuko langile batzuek erantzun egin diote duela aste pare bat LAB sindikatutik egindako salaketei. Adierazi dutenez, sindikatu horretatik «lan egiteko moduari buruz egindako deklarazioekin ez gara identifikatuak sentitzen». Gaineratu dutenez, «ez gara mehatxatuak, ezta hitzez atakatuak sentitzen eta ez dago inongo esklabuzarik». Salaketa horiek irakurtzerakoan «harrituak» gelditu zirela jakinarazi ondotik, «lanpostuetan gustura gaudela», azaldu dute.

URRUTIA AUZOAN HASERRE

«Behin baino gehiagotan Arraiozko Urrutia auzoa, goiko auzoa, urik gabe egon da Nafar Mendi-Simply hipermerkatuaren momentuko ur kontsumo izugarriaren ondorio, eta erantzule bakar baten errua izan da, Pierre Elorga Nafar Mendi-Simplyko jabearena». Halaxe dio Arraiozko Herriak egoera salatzekeko igorritako oharra.

Erreparosoa eginez, «duela urte batzuk Nafar Mendi-Simply hipermerkatua eraikitzekeko lehenbi-

ziko pausuak ematen hasi zirenean, Elorga familiarri, eta konkretuki Pierre Elorgari, uraz justu zebil-tzala jakinarazi zioten Arraiozko herritarrek eta kezka handia zutela herrion honelako denda haundi batek duen ur kontsumoak ekarriko zuen larritasun eta eskasiaz», dio idatziak. Nagusiak «trankil egoteko erran zuela» adierazi dute herritarrek, «beraiek hornituko zutela urez depositua». Diotenez, erai-kinaren inguruko belagai eta lorategiak zaindu, garbitasun industrialak egin, hipermerkatuko eremu-uan lurpeko ur bonbaz hornitu eta abar eginen zituela erran zuen». Arraiozko herriaren arabera, «gaurko egunean hau dena gezurra bertzerik ez da. Ez du agindutako bat bera ere bete».

Ur depositua hornitzekeo konpromisoan bigarren saiakera egin zela azaldu dute herritarrek, «Agerre baserri ondoan, lurpean, ura aurkitu eta ur bonba bat jarri zuten herritarren laguntzarekin». Lan hauek, ordea, ez zirela akitu diote arraioz-tarrek: «ura depositura bideratu gabe, elektrizitatez hornitu gabe, automatiziorako aparatua jarri gabe, inongo fundamenturik ez interesik erakutsi gabe, lanak alde batera utzi zituen. Herritarrek auzolanen bidez elek-



ARGAZKIAK: PELLO SAN MILLAN

Santa Ageda egunaren bezperan kantuan

Arratsalde hotza izan arren, Ikastolako eta Baztandarren Biltzarra Elkarteko kideak gogotik aritu ziren kantuan Santa Ageda egunaren bezperan. Ikastolako parkean elkartu eta Elizondoko karrketan koplak kantatzen aritu ziren eta bitartean, 6. mai-lako ikasleek maindire zuriarekin eskean ibili ziren. Horrekin, merendua egin zuten.

trizitatea bideratzeko beharrezkoak diren lurpeko tuboak jarri eta behar ziren arketak egin zituztela ere ageri da idatzian.

Arraiozko alkatea Nafar Mendiko nagusiarekin ere bildu zela jakinarazi dute oharrean, hipermerkatuak 9.000 euroko aurrekontua zuten lanak egin zitzaizkion, baina «gastu honi aurre egiteko inolako interesik ez zegoela ohartuta», alkateak auzolan bidez obra osoa eginen zela eskaini zion, eskaera batekin, obrako materialan gastatzen zen guztia, 4.500 euro, hipermerkatuaren kontua izanen zela». Honi ere «ezeko borobila» eman ziola diote herritarrek.



ARGAZKIA: ONDIKOL

ONCEren saria Lekarozko instituturara

Ikasle itsu baten mugikortasuna errazten duen ikusmen pedagogiarako programa bat landu dute Lekaroz Bigarren Hezkuntza Institututuko Puri Mugiro, Tere Azpiroz eta Orreaga Urroz irakasleek eta ONCE erakundearen saria eskuratu dute.

Gisa berean, erran dute, «ez dela lehenbiziko aldia bere hitza betetzen ez duena. Arraiozko biztanle batzuei hitza eman

zian Naztako bidea errepetatua izanen zela. Denei, baina bereziki bide honen erabiltzaileei, ez zian inongo kasurik egin».

Okindegia
Jatetxea

Uxoa

OKINDEGIA: Ogi artisaua, egunekoa eta txapata

JATETXEA: Menua eta Karta (asteburuetan)

Espezialitateak parrillan erretako jakietan

Enkargatuz gero, bildotsa ogi-labearen erreka, goxo goxo!



Ordoki Industrialdea

Tfnoa: 948 453 403

31713 ARIZKUN



Ordoki Industrialdea | ARIZKUN
Tel. 948 453 259 | Fax. 948 453 423
betikopvc@betikopvc.com
www.betikopvc.com

Leihoetan merkatuko isolamendu termiko eta akustiko hoberena



Kontraleihoetan modelo ezberdinak lantzen ditugu



betikorekin lan egitearen abantailak:

- 2.200m²-ko instalazioak, Baztan-Bidasoako fabrikanterik haundiena
- Kalitate-Prezio hoberenak
- 15 urtetako esperientzia leihoen munduan
- Makinaria aurreratuenak

ETORRI GURE INSTALAZIOAK IKUSTERA!

GIZARTEA

EGURALDIA → HOTZA

Azken urteotako tenperatura baxuenetakoak otsail hasieran

Gorramendin -12,8 gradura ailegatu da termometroa

TTIPI-TTAPA

Elurra, horma eta hotza. Otsail hasierako eguraldiaren ezaugarriak horiek izan dira. Termometroak aspaldiko tenperaturarik baxuenera ailegatu baitira.

Azken hamar urteotako datuei erreparatu, 2005eko otsailaren 28an neurtu zen tenperaturarik hotzena Gorramendin, 12,7 gradu zeropetik. Aurtengo otsailaren 3an, aldiz, zero azpitik 12,8 gradu neurtu zituen estazio meteorologikoak. Egun hori izan zen aurtengo orain arteko hotzena, eta minimoak ez ziren zero gradutara ere ailegatu. Leitzan eta Areson ere aski tenperatura baxuak neurtu ziren, 9 eta 9,5 gradu zero azpitik, hurrenez hurren.

Otsailaren 7a ere aski hotza izan zen. Go-

HERRIA	2012/02/03		2012/02/07	
	MAXIMOAK	MINIMOAK	MAXIMOAK	MINIMOAK
Amaiur	-	-	3,0 C°	-7,0 C°
Areso	-1,5 C°	-9,5 C°	1,5 C°	-6,5 C°
Arizkun	-1,0 C°	-5,0 C°	-	-
Artikutza	0,5 C°	-5,5 C°	1,5 C°	-5,5 C°
Bera	3,2 C°	-4,3 C°	5,5 C°	-6,4 C°
Bertz	1,0 C°	-4,0 C°	4,0 C°	-5,0 C°
Doneztebe (eskuzkoa)	1,0 C°	-3,0 C°	4,0 C°	-4,0 C°
Doneztebe (automatikoa)	1,5 C°	-4,2 C°	4,6 C°	-2,5 C°
Etxalar	1,0 C°	-4,0 C°	5,0 C°	-6,0 C°
Goizueta (Arranbide)	-	-	0,0 C°	-5,0 C°
Goizueta	2,0 C°	-5,5 C°	5,0 C°	-4,0 C°
Gorramendi (automatikoa)	-8,6 C°	-12,8 C°	-5,2 C°	-11,4 C°
Irurita (eskuzkoa)	0,0 C°	-6,0 C°	4,0 C°	-7,0 C°
Leitza	-2,0 C°	-9,0 C°	2,0 C°	-7,0 C°
Lesaka	1,0 C°	-4,0 C°	5,0 C°	-5,0 C°
Lesaka (San Anton)	0,5 C°	-3,5 C°	3,5 C°	-4,7 C°
Sunbilla	2,5 C°	-3,0 C°	-	-
Zugarramurdi	-	-	-	-

ramendin, adibidez, 11,4 gradu zero azpitik neurtu ziren, eta Amaiur, Irurita eta Leitzan zazpi gradu zeropetik. Eta bide beretik joan zen otsailaren 8a ere. Gorramendin 12,7 gradu zero azpitik neurtu ziren, eta

Leitzan, berriz, zazpi gradu zeropetik.

Bertzetik, aipatzekoa da, hezetasuna eta haitza kontuan hartuz, sentsazio termikoa are baxuagoa izan zela egun horietan. Adibide bat emate aldera, otsai-

laren 8an, Gorramendin 19 gradu zero azpikoa zen.

Goiko taulan otsailaren 3an eta 7an eskualdeko estazio meteorologikoetan neurtu ziren tenperatura maximo eta minimoak ageri dira.

BERTIZ

Mendizale boluntarioak behar ditu Bertizko Partzuergoak

TTIPI-TTAPA

Bertziko Turismo Partzuergoa mendizale boluntarioen bila dabil, Baztan-Bidasaldeko mendi ibilbide borobila egiteko. Interea dutenek izena eman dezakete email-az edo telefonoz Partzuergoarekin harremanetan jarriz. Martxoan ikastaroa egingen da eta udaberrian irteerak markaketa egiteko. Bertzetik, lehen sorospenen inguruko ikastaroa ere egingen ari da, monitoreen laguntzarekin. Urdazubiko Ikaburua jatetxeak eta Makullukoborda (Eli-zondo), Etxezuria (Ziga), Martiornia (Oiz) eta Erretenekoborda (Bera) landetxeak parte hartzen ari dira. Aipatu, gisa berean, Partzuergoak Navarturren egon dela berriki, bere alojamendu, aktibitate eta jatetxeen eskaintza gain, hainbat promozio eskainiz.

Alberto RETEGI
abokatuak
abokatuak
© 948 630 763 - Albade, 17 - BERA

BIDASOA
BIDASOA - BIDASOA
BIDASOA - BIDASOA
BIDASOA - BIDASOA
T.F. 859 971 442
BERA

PPSOE,
Euskal
Telebista
digitala
Nafarroan
orain!
Berriz arosi taidea

zalain
FITNESS - RESTAURANTE
Zalain autoa zig
31780 Bera
T. 948 631 106
www.zalain.com

MONTXO OSTATU
Dantzarinetik
2 km-tara
ТАВЛКО-ДЕНДЯ
АНЗАН-БОРДА - УРДАЗУБИ
Egunerik irekia 10.30etik 02.30era

GIZARTEA → 3. BOLETIN INFORMATIBOA KALERATU DU ARKUPEAK JUBILATUEN ELKARTEAK

Helduentzako unibertsitatea paratu nahi du martxan Arkupeak elkarteak

Maiatzera arteko ekintzak zehaztu ditu Arkupeak-ek

TTIPI-TTAPA

Egitasmo berriak darabilzki esku artean Arkupeak jubilatuz, pensionista eta alargunen elkarteak eta horietako bat helduentzako unibertsitatea abian paratzea da. Helburu horrekin, Agoitzen dagoen Francisco Indurain Unibertsitatearekin harremanetan jarri da zuzendaritza batzordea eta urritik aitzinera Doneztebeko Arkupeak-en egoitzan gai andana lantzeko asmoa dute: artea, filosofia, hizkuntzak, teknologia berriak, psikologia, zuzenbidea, historia, ekonomia... Matrikulatzeko ez da aitzineko ikasketarik behar. Baldintza bakarra 55 urte baino gehiago izatea da, nahiz eta, 18-54 urte bitartekoen zatia ere izan diren toki batzuk libre.

Hortaz aparte, heldu diren hilabeteetako ekintzak ere zehaztu ditu Arkupeak elkarteak. Eta horien berri, hiru garren boletin informatiboaren bidez eman du.

HITZALDIAK

Zuzendaritza Batzordearen asmo nagusi bat bazkide guztiei oinarrizko prestakuntza eskaintzea da eta hala, ikastaroak eta hitzaldiak antolatu dira.

Martxoaren 7an, **jubilazioen eta pensio-**



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Soinketa Eguna apirilaren 12an egingen da, beti bezala, Berako kiroldegian.

en gauregungo egoeraren inguruan hitzaldia izanen da Doneztebeko Arkupeak-en egoitzan, Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalako buru den Julian Sainz eta Informazio zuzendariordea den Francisco Calvorenkin. 19:00etan izanen da. Hitzaldi bera, maiatzean Leitzan egingen da.

Maiatzaren 13an Beran eta 14an Elizondon, **bizi-testamentua, heriotza duina eta borondate aurreratua** izenburupean hitzaldia eskainiko du Koldo Martinez medikuak, bi tokietan 17:30ean.

IKASTAROAK

Informatika hastapenerako ikastaroa Gurutze Gorriak eskainiko du eta Nafarroako Gobernuak finantzaturako bertze informatika ikastarorik egin ez dutenentzat dohainik izanen da. 55 urtetik goitiko gizonetzkoek eta emakumezkoek izanen dute

sarrera dohainik. Bi astez 25 orduko ikastaroa izanen da, astelehentik ortziralerara.

Olio-pintura ikastaroa Diana Iniesta margolariak eskainiko du. Matrikula dohainik izanen da eta materialagatik 15 euro ordaindu behar dira. Astean hiru aldiz eta goizez izanen da, hilabete batez.

Frantsesa ikasteko aukera ere eskaini nahi du Arkupeak elkarteak. Horretarako, ordea, guttienez bostz eta gehienez 15 laguneko taldea osatu behar da. Astean bi orduz ariko dira. 5-9 lagun apuntatuz gero, prezioa 30 euro izanen da eta 10-15 lagunekin 20 eurokoa.

Kasu guztietan, izena emateko otsailaren 29a baino lehen Arkupeak-era (948 450878) deitu behar da, 09:30etik 12:30era.

BIDAIAK

Ateraldiak ere zehaztu dituzte jubilatuen

elkartean. Egingen den hurrengo irteera **Xabieraldira** izanen da, martxoaren 5ean. Martxoaren 28an, berriz, **Olitera** joanen dira.

Apirilaren 11n **Ordiziko merkatura** joanen dira. Izen-ematea martxoaren 20, 21 eta 22an egin behar da herri bakoitzeko ordezkarietara. Biharamunean, 12an, **Soinketa Eguna** egingen da Berako kiroldegian. Izen-ematea martxoaren

26tik 28ra egin behar da herri bakoitzeko ordezkarietara. Apirilaren 17tik 25era **Andaluzia** aldera joanen dira, Cadiz, Herri Txuriak eta Sevilla bisitatuko dituzte. Izen-ematea otsailaren 27tik 29ra egin behar da, 948 450878 telefonoan.

Maiatzeko lehenbiziko irteera **Lourdesera** egingen dute, hilaren 2an. Apirilaren 16tik 18ra bitarte apuntatu behar da herrietako ordezkarietara. Maiatzaren 14tik 26ra, berriz, **Benidorm** bisitatuko dute. Martxoaren 26tik 28ra eman behar da izena, 948 450878ra deituta. Maiatzaren 30ean, azkenik, **Larun mendibiko Sara eta Urdazubiko leizeak** ikustera joanen dira Arkupeakekoak. Maiatzaren 7tik 9ra bitarte eman behar da izena, herrietako ordezkarietara jakinaraziz.

Hortik aitzinerako ekintzen berri eguna hurbildu ahala emanen da. Dena den, aipatu, Mendi Taldea ere irteerak egiten ari dela.

E D A R I A K

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel. Fax: 948 63 10 27

SENPERE

GIZARTEA → ATXILOKETAK

Jendarmeeek gas negargarriekin urrundu dituzte atxilotuei elkartasuna erakutsi dietenak

Elkarretaratze jendetsuak egin dira elkartasuna adierazteko

Franck DOLOSOR

Kalapita haundia iragan zen lbarrunen joan den otsailaren 14an 40 bat jendarmee herriko bi ahizpa, A.L. 22 urtekoa eta N.L. 21 urtekoa, arrastatu zituztelarik beren burasoen etxean. Biak Segi taldeko kideak dira eta leporatu zieten lotura izatea iaz Senperen berean udako etxe baten kontra gertatu omen zen atentatu saiakera-ekin.

5 ORDUZ MIATZEN

Polizia operazioa goizeko 6etan hasi zen: bi ahizpak atxilotu, etxea eta autoak miatu, eta ordenagailuak eraman zituzten jendarmeeek. Goizeko 11ak aldean, bi ahizpak etxetik atera zituzten

eta orduan Ahetzeko bidean elkartasunez bilduak ziren ezker abertzaleko hogoi bat lagun urruntzeko gas negargarriak bota zituzten jendarmeeek. Argazkilari batek ere gas mingarria irentsi zuen. Bi ahizpak Paueko jendarmeriarat eraman zituzten galdeketa egitera, baina biharamun gauean berean zaharrena libro utzi zuten kargurik gabe. Gazteena, ahatik, Pariserat eraman zuten otsailaren 16an. Burasoak eta gazte baten mutil-laguna ere entzunak izan dira polizia etxeetan.

Atxiloketak gertatu zirenetik elkartasunezko elkarretaratze jendetsuak egin dira Herriko Etxearen aitzinean.



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Atxiloketen berri izan bezain laster, lagun eta senide ugari hurbildu zen protesta egitera.



ARGAZKIAK: TTIPI-TTAPA

Maixan Arribillaga zendu da

Bat-batean zendu eta, joan den otsailaren 9an bere azken egoitzarat segitua izan zen Marie Jeanne Mauchamp, sortzez Arribillaga. Herrian biziki ezaguna zen Arretxea eta San Josep eskoletako irakaslea izan baitzen luzaz, 70ko hamarkadatik 1988ra arte, erretiroa hartu arte. Gainerat, erretiroan ere gazteen artean segitu zuen lanean bereziki ikasteko zailtasunak zituzten ikasleak lagunduz. Urte horietan, ehunka haur pasa dira *Madame Mauchamp* eskola emailaren eskuetatik. Gazte-gaztetik irakasle izan nahi zuen bere izeba Marie Jeanne Arribillaga irakasle ezagutuaren urratsak segitzeko. Sorterriari, fedeari eta familiari biziki atxikia zen eta berriki aktualitaterat itzuli zen pixka bat Arribillaga familiaren kantu bilduma aberatsa plazaratu zuelarik herriko zombait kulturazalerekin. Doluminak.



KULTURA → BIGARREN EDIZIOA

Larunbat honetan egingen da Usopop festibala

20:30ean hasita kontzertuak izanen dira

Joana GUERENDIAIN

Larunbat honetan, otsailak 25, gauarekin Usopop kontrapasaren bigarren edizioa egingen da Lur Berri gelan. Kontzertuak 20:30ean hasiko dira Rover eta Ruper Ordorikarekin eta gaua bukatzeko gazte txean Islaia eta DJ Aloe Vera izanen dira. Gau goxo bat pasatzeko aukera emanen dute berri ere arrakasta hartzen ari den festibal honen antolatzaileek!

Turismo Bulegoaren biltzarra

Joan den otsailaren 2an 30 bat lagun bildu

ziren Turismo Bulegoaren biltzar orokorrarentzat. Oro har udako hila beteetan jende guttiago ibili da 2010ko sasoinari begiratu, dudarik gabe, lotua da aurtengo uda ez baita famosa izan. Beharrik sasoin gibel polit bat izan dela eta horrek antiazioek gorakada bat eza gutu dute.

Geroari begira proiektu batzuk pentsatuak dituzte: espazioaren berrantolatze bat eta webgunea bukatu www.sare.fr. Aurkeztuak izan ziren 2012an egingen diren ekintzak ere, berrikuntza batzuekin: lehen aldiko *Foires aux dépliant*s deituriko azoka antolatuko da maiatzaren 24an, hau da, turismo bulegoen biltzar bat, nun bakoitzak bere aktibitateak aurkeztuko dituen. Eta

aurten, kontrabandisten lasterketa goizez egingen da.

Finantziarioa ere aipatu zen eta notatzekoa da Sarako Turismo Bulegoak 2.180 euro bildu zituela Telethonarentzat.

Zahar etxe berria

Urte hasiera honetan bukatu dira zahar etxe berriaren obrak eta otsailaren 1ean egoiliarrek sartu ahal izan zuten. Eraikuntza zaharraren berrantolatze bat pentsatua izan da: bulegoak osasunaren profesionalentzat eraikiko dira, haurzaindegi tiki bat eta eskuratzeko sozialako 14 apartamentu.

Kirol emaitzak

Otsailaren 12an Ur-txintxak Pau Noustyko taldearen kontra aritu ziren eta galdu egin zuten 11-13, baina joko



Mus Txapelketa

Aurten 31 ekipak parte hartu dute Maixan eta Veroniquek antolatutako mus txapelketan. Finalak otsailaren 10ean egin ziren eta Xabi Péral eta Xan Ondicola atera dira txapeldun. Txapeldunordeak Thomas Lafitte eta Patrick Etchegaray izan ziren, hirugarren Julien Pradine eta Romain Guedes, laugarren Joana eta Leon Urbistondo. Bigarren mailan Denis Indarra eta Pantxika Etcheverria izan ziren irabazle, Peio Larralde eta Bastien Arribillagaren aurka, hirugarren mailan Mickael Azkarraga eta Daniel Calvet irabazle, Elodie eta Aurélie Ibarluciaren aurka. Txapelketa ondotik zintzur bustitzea egin zen pintxoekin ekipak eskertzeko.

polita erakutsiz.

Frantziako mus txapelketa

Otsailaren 26 an Keinu

Tabernan Frantziako mus txapelketa egingen da. Izena emaitzeko deitu zenbaki honetara: 06.35.20.65.06.

KULTURA

KULTURA → EUSKAL KANTU XAPELKETA ETA EUSKAL IRRATIAK ELKARTEEN ESKUTIK

Zabalik dago Iparraldeko helduen kantu xapelketan izena emateko epea

TTIPI-TTAPA

Euskal Irratiak federazioaren laguntzarekin, helduen kantu xapelketa antolatu du Euskal Kantu Xapelketa elkarteak Iparraldean. Gisa honetara, kantari berrien talentua ezagutarazi eta plazaratu nahi da, ohitura eta euskal kantuen memoria man-

tendu eta musikagileak sustatu eta sorkuntza bultzatu ere bai.

Ekainean egingen den Euskal Herri mailako finalerako ordezkariak aukeratu dira, eta horretarako Iparraldean kanporaketak jokatu dira. Martxoaren 17a izanen da izena emateko azken eguna: Baxe

Nafarroan Irulegiko irratirat deitu behar da izena emateko (05 59 37 14 11-Jone), Lapurdin Gure irratirat (05 59 59 30 01-Miren) eta Xiberoan Xiberoko Botzarat (05 59 28 29 87-Artzen). Izena ematerakoan aukeratuak kantua zein den ere jakinarazi behar harko da.

Diskarik plazaratu ez duten 16 urtetik goitikoek parte hartzen ahaliko dute, eta hiru kategoria izanen dira: banaka, binaka edo taldeka (15 kide gehienik). Musika-rik gabe edo musikarekin lagunduta aurkez daiteke, kanta ezagunarekin edo norberak sortutako batekin.

Finalerdi bakoitzean publikoaren sariaz gain, maila bakoitzeko bi lehenbizikoak izanen dira sarituak, eta hortaz aparte, bertzelako sariak ere izanen dira: ahots hutseko saria, sorkuntza saria, publikoarena, interpretazio onenaren saria, berezitasunarena eta musika antolaketa onenarena.

EZKONTZAK

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.



SORTZEAK

Naroa Mutuberria Pagola, Arantzakoa, otsailaren 5ean.
Irati Mitxelena Juanaberria, Lekarozkoa, otsailaren 2an.
Dorleta Arana Perez, Zubietakoa, urtarrilaren 29an.
Oihana Aragon Garrote, Zubietakoa, otsailaren 6an.
Ethan Gomes Villanueva, Igantzikoa, otsailaren 5ean.
Kattalin Pinillos Auzmendi, Etxalarakoa, otsailaren 4an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

HERIOTZAK

Joxe Perurena Apezetxea, Goizuetakoa, urtarrilaren 19an, 89 urte.
Juan Larin Gonzalez, Goizuetakoa, urtarrilaren 22an, 59 urte.
Migel Saldias Petrarena, Beintza-Labaiengoa, otsailaren 1ean, 91 urte.
M^a Rosario Gartzia Gartzia, Berakoa, otsailaren 2an, 60 urte.
Santiago Ibarra Elizalde, Zigakoa, otsailaren 3an, 64 urte.
Migel Telletxea Iribarren, Beartzun-Elbete, otsailaren 5ean, 76 urte.
Pello Apeztegia Petrarena, Sunbillakoa, otsailaren 6an, 78 urte.
Emilio Hernaiz Campo, Elizondon, otsailaren 7an, 88 urte.
Manuel Jaimerena Salaburu, Amaiurakoa, otsailaren 8an, 87 urte.
M^a Jesus Perurena Santesteban, Doneztebekoa, otsailaren 10ean, 71 urte.
Francisca Goñi Tapia, Lesakakoa, otsailaren 9an, 84 urte.
Fermin Oskoz Iñarrea, Almandozkoa, otsailaren 10ean, 89 urte.
Antonio Elzaurdia Altzuguren, Berakoa, otsailaren 11n, 84 urte.
Jabier Elizalde Colau, Doneztebekoa, otsailaren 12an, 76 urte.
Bizente Zelaieta Etxenike, Iruritikoa, otsailaren 13an, 81 urte.
Migel Zubieta Arratxea, Arraiozkoa, otsailaren 13an, 91 urte.
Francisco Danboriena Arburua, Elizondokoa, otsailaren 13an, 80 urte.
Xanti Larretxea Grajirena, Arantzakoa, otsailaren 14an, 89 urte.
Eugenia Erasun Elizalde, Ezkurrakoa, otsailaren 14an, 85 urte.
Robert Etxebeste, Sarakoa, urtarrilaren 23an, 77 urte.



Pablo GOIENETXE IRIGOIEN

Etxalarren, 2005eko irailaren 3an, 82 urte

Josefa DANBORIENA SANZBERRO

Etxalarren, 2012ko urtarrilaren 30ean, 89 urte

Umorez eta alaitsu egoten ginen elkarrekin, eta oroitzapen ahaztez in horiek beti geldituko dira gurekin.

ZUEN FAMILIA



Rufina

IRIARTE MITXELENA

V. URTEURRENA

Sunbillan, 2007ko otsailaren 25ean

Sobera abudo joan bazinen ere, beti gogoan eta bihotzean izanen zaitugu.

ZURE SEME-ALABA ETA ILOBAK



Xanti

LARRETXEIA GRAJIRENA

Arantzán, 2012ko otsailaren 14an, 89 urte zituela

GOIAN BEGO

Gure eskerrik beroenak une samin hauetan gurekin bat egin duzuenoi.

**OTSARRAKO FAMILIA
ARANTZA**

AUTO LASTERKETAK → 24 URTEKO ELIZONDARRA 2007AZ GEROZTIK DABIL AUTO LASTERKETETAN

Nafarroako mendi automobilismo txapelketa irabazi du Imanol Oskozek

Junior eta absolutuen txapelak irabazi ditu

TTIPI-TTAPA | ELIZONDO

Imanol Oskoz Etxandi autogidari elizondarra Nafarroako mendi automobilismoko txapeldun izan da aurten junior mailan (25 urte arte), baita maila absolutuan ere.

Oskozek 24 urte ditu eta 2007an hasi zen auto lasterketetan, urtebete lehenago trafiko istripuan hil zen Jon anaiaren oroituz. Izan ere, Jon Nafarroako mendiko automobilismoan txapeldun izan zen 2005ean. Anaia ongi gogoan izateko, *Jon zu zara nire gidari* esaldia ageri da bere Peu-



UTZITAKO ARGAZKIA

Jabier Arregi kopilotoa ezkerrean eta Imanol Oskoz gidaria eskuinean, urte hauetan irabazitako garaikur batzuk gibelean dituztela.

geot 205 GTI autoaren aitzineko aldean.

Autogidaria izateaz gain, azkeneko bortz urteotan mekanikaria da Rectificados Tecnomotor enpresan. Eta enpre-

sahori da bere laguntzailleetako bat, Sagardiko Edariak, Industrias Pevi, Hiper Nafar Mendi, Baztangoiza Tailerrak, Carrocerias Mugaire eta Rotugrafikekin batera. La-

guntza guztiak ongi heldu dira, proba bakoitzean izen-ematea 130 eta 245 euro arteko gastua baita. Horri, garraiorako gurdiaren alokairua, zirrikak, erregaia, bidaiak,

gidari nahiz laguntzailearentzat aseguruak eta bertze hainbat gastu gehitu behar zaizkio. Dena den, autoa berak prestatzen du etxean, zenbait lagun laguntzarekin.

Rally-a ere probatu du Oskozek eta 2009tik Jabier Arregi du laguntzaile. Gainera, Nafarroako txapelketa, junior kategorian hirugarren izan dira.

Mendiko igoeretan, halere, bakarrik ateratzen da Oskoz. 2011n, Salinas, Aia, Urbasa eta Urrakiko igoeretan parte hartu zuen eta bere kategorian irabazle izan zen gehienetan.

Eta orain, 2011n txapeldun izan ondotik, martxoaren 4an hasiko den denboraldi berriari begira dago, berriz ere garai izateko asmoz.



Javier ELIZALDE GOLAU

Donezteben, 2012ko otsailaren 12an, 76 urterekin

Gure atta Javier joan zaigu, zoriontsu bizi izan da, eta pozik egonen da, guretako hain gogorak izan diren egun hauetan bera agurtzen laguntzera hurbildu zareten lagun guztiak ikusita, ESKER MILA BIHOTZ BIHOTZEZ!

ZURE FAMILIA



Miguel ZUBIETA ARRATXEA

JOSEFA AZKONA LANDAREN ALARGUNA

2012ko otsailaren 13an hil zen

Muxu haundi bet, aitetxi.

ZURE FAMILIA
Arraiozen, 2012ko otsailan

Rekordatorioak egiten ditugu

ttipi-ttapa

Andeluzeta, 12
ETXALAR 1 848635458

SOKATIRA → GOMA GAINEAN

Munduko Sokatira Txapelketan ariko da Amaiur Eskozian

Asteburu honetan izanen da eta bi talde aurkeztuko ditu

TTIPI-TTAPA | AMAIUR

Goma Gaineko Munduko Sokatira Txapelketa jokatu da asteburu honetan Eskozian. Alde batetik, otsailaren 23an eta 24an, klub arteko txapelketa jokatu da, eta bertetik, hilaren 25ean eta 26an, nazioen artekoa. Eskoziako egitarau ofizialean Euskal Herriko taldeak *Euskal Herria* bezala ageri dira, baina TWIF-eko egitarauan bertze taldeak izenarekin ageri dira, hau da, bertze na-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Amaiur Sokatira Taldea lanean.

zioak. Gainera, Irlandarekin batera, Euskal Herriari du ordezkariarik haundiena, zazpi klubek 24 talde aurkeztuko baitituzte. Tartean egonen da Amaiur ere, bi talde-

rekin. Gizonezkoen 560 eta 600 kiloko kategorietan parte hartuko du.

Bertetik, aipatu, otsailaren 18an akitzeko zela goma gaineko Euskadiko Sokatira Txapelketa.

Orduan erabakitzekeoa zen 560 kiloko lehia. Gainerakoa, 680 kiloko hirugarren izan da Amaiur, 640koan seigarren eta 600ekoan bigarren.

PILOTA → MALERREKAKO ESKUZ BINAKAKO TXAPELKETA

Larunbat honetan jokatuko dira Malerreko txapelketako finalak

Zazpi kategoriatan jokatuko dira partidak

TTIPI-TTAPA | DONEZTEBE

Urtarrilaz geroztik lehen ibili eta gero, eskuz binakako Malerreko X. Pilota Txapelketa finalen ataria dago. Larunbat honetan, otsailak 25, jokatuko dira Donezteben.

Guztira 184 bikotek parte hartu dute Erreka elkarteak antolatutako txapelketa honetan, eta zazpi kategoriatan neur-

tu dituzte indarrak. Orain, ailegatu zaie, azken ahalegina egiteko ordua. Goizean hasiko dira finalak jokatzen.

BORTZIRIETAKO
MARTXOAREN 10EAN

Bortzirietako XI. Eskuz Banakako Pilota Txapelketa aitzinera segitzen du, eta laster, finalerdietan sartuko da.

Martxoaren 2, 3 eta 4an erabakiko da zein izanen diren finalistak. Titikien eta benjaminen A eta B mailakoen finalerdia Etxalarren jokatu-ko dira, martxoaren 4an.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

luz elite mailan Onsalo eta Arraztoa izan ziren txapelak.

Alebinen A eta B eta infantilen A kategoriako finalerdia martxoaren 3an Arantzan jokatuko dira. Eta kadeteen A eta B mailako finalerdia mar-

txoaren 2an eginen dira, Beran.

Finalerako txartela lortzen dutenek martxoaren 10ean neurtuko dituzte indarrak Lesakan.

FLASH

Barriola 2016ra arte Aspen

Abel Barriolak (Leitza, 1978) 2016ra arte luzatu du kontratua Asperekin. Aurtengo martxora artezuen hitzarmena, baina bertze lau urterako sinatuta, «izugarri pozik» dagoela aitortu du: «momentu bikaina igarotzen ari naiz, eta albiste honek konfiantza emanen dit aurretzean». Aste honetan, 14 urte bete dira Barriolak profesionalen debutatu zuenetik, 1998ko otsailaren 22an izan zen, Tolosako Beotibarren. Geroztik, lau t'erdian txapel bat (2001) lortu du, buruzburu txapel bat (2002), lau t'erdiko nafarroako txapel bat (2002), lau t'erdian lau aldiz azpitxapelak (2004, 2006, 2007, 2010) eta buruzburu bi aldiz azpitxapelak (2007, 2008).

Federazioaren argitalpen berria

Herri kirolak zabaltzeko asmoz, 2003an hasitako proiektuari zortzigarren argitalpenarekin eman dio amaiera Nafarroako Herri Kirol Federazioak. Aitzinetik bertze zazpi lan kaleratu ditu harri-jasotzea, aizkora, arpana, Iparraldeko Jokuak, sokatira, sega eta herri kirolaren jatorria eta ezaugarriak buruz. Bi bideo ere egin dira harri-jasotzea eta sokatirari lotuta. Eta azken lanean, Federazioaren egitura eta funtzionamendua azaldu du Mikel Lasartek *Herri kirolak Nafarroan: 1991-2011. Nafarroako Herri Kirol Federazioaren 20. urteurrena* izenburupean eta atal berezi batean markak bildu. Federazioaren egoitzan eskura daiteke, Sunbillan (948 450900 eta info@herrikirolaknafarroa.org).

PILOTA → PAXAKA TXAPELKETA

Iruridak irabazi du XII. aldiz jokatu den Paxaka Txapelketa

Lau lehenbiziko postuak Iruritan gelditu dira

TTIPI-TTAPA | IRURITA

Otsailaren 4an Irurita-ko Aranabia pilotalekuan jokatu ziren partidekin erabaki zen XII. Paxaka Txapelketako garaiak zein diren. Aitzinetik jakina zen bezala, txapela Iruritan gelditu zen, lehenbiziko lau postuetarako sailkatutako guztiak iruritarrak zirelako. Are gehiago, urtarrilaren 7an abiatu zen txapelketan parte hartu duten zortzi taldetik zazpi iruritakoak izan dira.

Lehendabizi, hirugarren eta laugarren posturako lehia jokatu zen. Alde batetik, Guillermo



ARGAZKIA: MAITE OTEIZA

Lau lehendabiziko sailkatuak laguntzaileekin, sariak jaso ondotik.

Etxenike, Iñaki Zabaleta eta Migel Bidegain aritu ziren eta 9-6ko markagailuarekin nagusitu ziren, Mikel Ballarena, Jexux Etxenike eta Cesar Sarratearen kontra. Ondotik etorri zen finalaren txanda. Nahiko ber-

dindua joan zen, eta azken emaitza izan zen horren lekuko. Migel Garate, Joseba Urtasun eta Joxe Mari Salaburuk 9-8ko emaitzarekin irabazi zieten Oskar Urrutia, Xabier Ripa eta Migel A. Iñarreaki.

Txapelak eta sariak lehenbiziko lau taldeei banatu zitzaizkien eta Irurita-ko Aranabia Kirol Taldeko Maribel San Jose eta Josu Primek parte hartu zuten sari banaketan. Ondotik, afaria egin zuten denek elkarrekin.

FLASH

Martxoaren 15ean irekiko da Berako Maratoi Erdian izena emateko epea

Apirilaren 15ean egingen den Berako Mendi Maratoi Erdia prestatzen hasia da Manttalle Mendi Taldea. Aurtengo zortzigarren edizioa izanen da eta izen-ematea martxoaren 15ean zabalduko da, 13:00etatik aitzinera, eta Manttalen web orrian egin behar da (www.manttale.com). Prezioa joan den urteko berdina izanen da, 22 euro federatuek eta 25 euro federatu gabekoez. Antolakuntzak azken haurtzat aseguru pribatu bat izanen du, lasterketan gerta dakioken edozein gorabeherari aurre egiteko. Martxoaren 27ra arte zabalik egonen da izena emateko epea, beti ere, 450 dortsalak agortu bitarte.

HERRI KIROLAK → NAFARROAKO FEDERAZIOAREN ESKUTIK

Martxoaren 4an Berriozarren hasiko dira Herri Kirol Jolasak

Bera, Igantzi eta Baztango Basaburuako taldeak ari dira

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Herri Kirol Federazioak kirol jolasak antolatu ditu bertze urte batez. Martxoaren 4an abiatuko dira Berriozarren eta apirilaren 1era bitarte, herriz herri proba konbinatu-

tan eta sokatiran hainbat gaztetxo ibiliko dira.

Martxoaren 4an Berriozarren jokatuko den jardunaldiaren ondotik, martxoaren 11n Sakanan jokatu da (Arbizun edo Etxarrin), martxoaren 18an Beran egingen da, martxoaren 25ean Altsasun eta apirilaren 1ean Igantzin. Hori izanen da bosgarren eta azken saioa. Aipatu, jardunaldi guztiak 11:00etan hasiko direla.

PARTE HARTZAILEAK

Guztira hiru kategoria izanen dira: kimuen mailan (2000 eta 2001 urteetan jaiotakoak) konbinatuetan bakarrik ariko dira eta Berriozar, **Igantzi Unanu eta Abelu**, Etxarri Aranazko Andra Mari eta Putterri, Altsasuko Iñigo Aritza, **Baztango Basaburuak**, Araitz Beteluko Araxes eta Iruñeko Sanduzelai taldeek parte hartuko dute.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Baztango Basaburuak taldeko mutilak arpanean.

Haurretan (1998-1999an jaiotakoak) konbinatuetan eta sokatiran ariko dira eta Berriozar, Andra Mari, Iñigo Aritza eta **Basaburuak** parte hartuko dute.


Kadeetan, azkenik, (1996-1997 urteetan jaiotakoak), Berriozar A

eta B, Andra Mari, **Basaburuak** eta **Berako** taldeek eman dute proba konbinatuetan izena. Sokatiran, horiez gain, Iñigo Aritza ere ariko da. Berako taldeak aurten lehenbiziko aldiz parte hartuko du, baita Sanduzelai ere.

otsailak 23-martxoak 8

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.net edo 948 63 54 58

Kontzertuak



SARA | 2012.02.25

Uso-pop Kontrapasaz musika Lur Berrin eta Gaztetxean

Ruper Ordorika eta Rover ariko dira 20:30etik goiti Lur Berrin gelan eta gero, Islaia eta Aloé Vera (dj set) Gaztetxean, Uso-pop Kontrapasaren kariatarat.

Azokak




BERA | 2012.03.04

Salgai Hondarren IV. Feria antolatu du Larun Haizpek

Iazko atsedenaldiaren ondotik, Salgai Hondarren Feria antolatu du Komertzianteen Elkarteak. 10:00etatik 19:00etara izanen da Toki Ona kiroldegian.

Zinema



DONEZTEBE | 2012.02.26

Zinema saioak hamabortzero Guraso Elkartearen eskutik

Pitufoak izanen da larunbat honetan ikusiko den lehen filma eta *X Men, lehendabizio belau-naldia* ondotik. Hamabortzero saioak egin nahi dituzte.

17an eta 18an, hiru asteburuz kontserba tailerra Amaiurren. Larunbatetan 16:00-20:00 eta igandetan 09:00-13:00. Izena emateko 659 099309 edo otsondo@terra.es. Otsailaren 25a baino lehen.

Azokak

BERA

Salgai Hondarren Feria

Martxoaren 4an Larun Haizpe Elkarteak antolatutako Salgai Hondarren Feria, 10:00etatik 19:30era kiroldegian.

Kontzertuak

BERA

Ska gaua Gaztetxean

Otsailaren 24an Guaka eta Luz de putas taldeekin kontzertua Kaxerna Gaztetxean, 22:00ean. Biharamunean Kaxernotegia (Sagardotegiko menuarekin bazkaria, ondotik bertsolariak).

SARA

Uso-pop kontrapasa

Otsailaren 25ean Uso-pop kontrapasa eginen da Lur Berrin, 20:30etik goiti. Ruper Ordorika eta Rover, eta Sarako Gaztetxean Islaia eta Aloé Vera dj set. Sarrerak 10 eurotan: Herriko Etxeko Edantegia eta Pleka, Berako Katakua ostatua eta Baionako Elkar denda. Jatekoa bertan.

ELIZONDO

Joseina & Gogos Lur aretoan

Otsailaren 25ean Joseina & Gogos Lur aretoan, 01:00etatik aitzinera. 9 euro eta konsumizio bat doan 03:30 arte.

Zinema

LEITZA

Zinemako saioak**Erakusketak**

LEITZA

Guatemalako argazkiak Peritzan

Mikel Zabaletak Guatemalako indigenei ateraketa argazkiak Peritzan.

ELIZONDO

Birziklatuz ikastaroko ikasleen lanak**Martxoaren 5etik 20ra**

Birziklatuz ikastaroko ikasleen lanen erakusketa Arizkunenean.

Inauteriak

SALDIAS

Otsailaren 24 - 25ean.

EZKURRA

Martxoaren 3an.**Solasaldiak**

DONEZTEBE

Erretiroen eta pentsioen egoeraz

Martxoaren 7an Erretiroen eta pentsioen gaur egungo egoeraz solasaldia, 19:00etan Arkupeak-en egoitzan.

Ospakizunak

SUNBILLA

Sahara Sahararentzat besta

Otsailaren 24an Saharar Errepublikaren al-

darrikapenaren urteurrena gogoan *Sahara sahararentzat* besta.

ELGORRIAGA

Arkupeak elkartearen besta

Martxoaren 4an Arkupeak elkartearen Zubietan, Aurtitz, Ituren eta Elgorriagako bazkideek besta.

Ikastaroak

DONEZTEBE

Arkupeak-en eskutik

Informatika hastapena, olio-pintura eta fran-

tsesa ikastaroak. Izen ematea otsailaren 29a baino lehen elkartera (948 450878) deituz 09:30etik 12:30era.

BERA

Giza zientziatarako liburutegi eta bilatzaile digitalak

Martxoaren 2, 9 eta 16an Giza zientziatarako liburutegi eta bilatzaile digitalak ikastaroa antolatu du Bidasoa Ikerketa Zentroak. Zaragozako Unibertsitatean irakaslea den Fernando Mikelarenak

emanen du Toki Ona institutuan, 19:00etik 20:30era. Izen ematea: bidasoakerketazentroa@gmail.com (doan).

LEITZA

Ipar-eski ikastaroa

Mendibil Mendi Taldeak ipar-eski ikastaroa antolatu du otsailaren 25erako. Informazio gehiago: www.blogak.com/mendibilaurrera.

AMAIUR

Kontserba tailerra

Martxoaren 3an eta 4an, 10ean eta 11n eta

PROPOSAMENA

SUNBILLA

Sahara sahararentzat besta

Saharar herriak errepublika aldarrikatu zuela 35 urte beteko direla eta, Saharaztanek besta antolatu du otsailaren 24an, *Sahara sahararentzat* lelopean. Haurrendako jokoak, elkarretaratzea *Sahara okupatura brigada* hitzaldia Erratzuko gazteen eskutik eta afarian, saharar erara egindako couscousa dastatzeko aukera izanen da Sunbillan.



Otsailaren 24 eta 26an *Un Dios salvaje* filma (zuzendaria: Roman Polanski) ikusgai zineman. Ostiralean 22:30ean eta igandean 19:30ean.

IGANTZI

Zinema ziberrean

Otsailaren 26an *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* filma ikusgai izanen da Ziberrean 19:30ean.

DONEZTEBE

Zinema martxan

Otsailaren 26an *Pitufok* filma ikusgai izanen da zineman 16:00etan eta *X Men, lehendabiziko belaunaldia* 18:30ean. Mendaur eta Erreka Guraso Elkarteek antolatua.

Mendi ateraldiak

BAZTAN

Baztango

Mendigoizaleak

Otsailaren 26an Oronoz-Enaburua-Iriso-Legasa-Oteixon-Suspiro-Bertiz-Oronoz ibilaldia eginen da (08:00).

Martxoaren 3an Astigarrara ateraldia eginen da (07:00 autobus geltokian).

BERA

Labiaga Ttiki taldea Ziburuko mendirat

Otsailaren 26n Ziburuko mendirat ateraldia antolatu du Labiaga ikastolako Larun Ttiki mendi taldeak. Kotxez Usatitaraino (09:30).

ZUGARRAMURDI

Herriko itzulia eginen du Atxuria taldeak

Otsailaren 26n Zugarramurdiko Itzulia eginen du Atxuria Mendi Taldeak.

Gertaera guztiak ikusteko, begiratu: **www.ttipi.net** (agenda)

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

Liburuak



De Rerum Natura 4

PATXI HUARTE

«ZALDI EROA»

Elkar, 2011

Bonaparte Errusiako kanpainan bezala, ezinean dabil Napoleon Lopez gurea, euskal gizarte eskertzarrekoak haren normalizazio saioak ulertu nahi ez dituela-eta; The Organization, berriz, zenbat eta gutxiago agertu, orduan eta arrakastatsuago. Ohi duen moduan, edozein gertaerari buelta eman eta alderdi umoretsutik begiratzeko ahalmen miragarria erakusten du Zaldi Eroak, bizitzak ezin konponduko minak ere badituen arren: adibidez, azkenaldi honetan utzi gaitu Xaxak, eta hari eskainia da liburuaren azken zatia.

Patxi Huarte Larraburu Nafarroako Erriberan sortua (Faltzes 1966), Iruñean eman du bizitza osoa. Unibertsitateari uko egin zion bere burua intsumiso deklaratu. Zerbitzu militarren aurrean objektore bihurtu zen. Ez du inongo fabrikarik ezagutu. Maite ditu txoriak, txetxenoak, macintoshak, musika eta ardoa. Bizikletazalea da. Autoak gorrotatzen ditu.

Musika




Lagunartean

GAIZKA PEÑAFIEL

Baga-biga musika ideiak, 2011

Gaizka Peñafiel Lezamako (Bizkaia) artistaren bigarren diskoa da *Lagunartean*. Bi diskoen artean ez dago lotura handirik. Gaizka Peñafielek bereak eta bartz eman ditu bigarren hau argitaratzeko. Bereak eta bartz musikari lagun berrien ekarpenaz harro egoteko, hameka musikari laguntzaile hurbildu baitira *Lagunartean* egitasmora. Lagunarte onak emaitza onak baino ez dituela ondorio erran ohi da. Horrela izan da. Disko irekia da Gaizka Peñafielek sortu duena. Pop doinuak dira nagusi kantu guztietan, folkarekin zoragarri nahastuta. Pop-folkaren pisua dotore darama diskoak. Trikiaren nortasuna ez da galdu trikitilariaren abiapuntuan eta, beraz, definitzeko modu bat izan daiteke pop-folk-triki disko goxoa dela *Lagunartean*. Kantuak erraz eta xamur sartuko zaizkigu. Melodia korapilatsurik ez dago, helburuan ahalik eta eztien helaraztea doinuen laguntasuna. Ahots xumeak doinu eta melodien zirrikitu ttikiaren babesean.

Internet



Gastronomiaz euskaraz gozatzeko orria

SUKALDEAN.COM

1.000 errezeta baino gehiago begiratu daitezke www.sukaldean.com webgunean, baita norberak bereak gehitu ere. Arlo batzuetan euskaldunok erdarazko edukietara lerratzeke dugun joerari aurre egiteko web orria da sukaldean.com, euskaraz bizi ahal izateko eta euskararen erabilera sustatzeko web orria, alegia. Euskaldunon errezetategia aberasteaz gain, sukaldaritzan erabiltzen den hiztegi zehatzaren lekuko izan nahi du. Garaian garai-ko produktuan erabiltzearen alde egingo du, haiek nola prestatu erakutsiz eta merkatuko prezioen berri emanez. Euskaldunen artean zegoen hutsunea bete nahian, dagoeneko zuzeu.com albistegi horizontala kudeatzen duen Xoraturikan SL irabazirik gabeko enpresak bazter batean zeukan sukaldean.com web orria eraberritzea eta garaietara egokitzea erabaki du, Eusko Jaurlaritzaren Kultur Sailaren dirulaguntza bat aprobetxatuz.

Nire aukera



Mikel LIZARRAGA
Leitzako Ogiberri okindegikoa

«Astia dudanean Zarautzera joan eta itsasoan sartzea gustatzen zait»


Okindegiko lana lotua da eta bi urteek ere denbora pila kentzen diote leitzarrari, baina «mendia asko gustatzen zait eta beta hartzen dudanean eskapadaxoren bat egiten dut». Zarautzen bizitu izan da eta «itsasoa ere asko gustatzen zait eta ahal dudanean uretara sartzen naiz, negu gorrian izan ezik urte osoan. Arrantza pixka bat egin, surfeko taularen gainean ere zutik jarri nahian hortxe ibiltzen naiz», dio. Okindegian hasi baino lehen harria eta zura lantzen aritu zen urtetan: «Nire bokazioa hori da eta buztin puxka bat hartu eta zerbait modelatzeko txirrinta hori izaten dut maiz. Aukera dudanean eginen dut». Bi egun segida libre duenean, «hasteko loaldi on bat» egitea gustatzen zaio eta gero, «mendian buelta bat familiarekin, bazkaritxoa eta Zarautzera eskapada bat». Gaztetan Europan barna asko bidaiatutakoa da, baina orain opor gutxi izaten ditu. «Hawaira joango nintzateke, baina ez surfeatzerara», dio.

ETXEBIZITZAK**salgai**

ERATSUN. 3 borda salgai, lur eremuarekin. ☎943 217817.

LESAKA. Herri erdian apartamentua salgai. Berrria eta aukera oso ona. ☎943 636209/ 605 717999.

ARESO. Sastizar base- rri-landetxea salgai, 25.000m²ko lur eremua- rekin. ☎649 707584.

**ANZABAL**
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdian

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

ZUGARRAMURDI

- Baserria salgai 80.000 metro²ko lur eremuarekin.
- Etxe adosatua bere lurra- rekin salgai.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581459
anzabal@anzabal.com

ITUREN. 90m²ko pisua salgai: 3 logela, 2 bainu- gela, egongela, sukaldea, garajea eta trastelekuarekin. Oso egoera onean eta guztiz mobleztatua. ☎637 145801.

LEITZA. Amazabalen pi- sua salgai. Oso egoera onean, bizitzera sartzeko prest. 90 m²ko pisua: su- kaldea, bainugela, egon- gela, 3 logela handi eta trastelekuarekin. Igogailua jarri berria eta berogailua- rekin. Aukera ezin hobea. lkus ezazu. ☎649 208310.

ELIZONDO. Maurizio Be-

MERKATU TTIKIA

948 63 54 58

info@ttipi.net edo www.ttipi.net

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **8€** ORDAINDU BEHAR DA
ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO **10€**

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
TELEBISTA eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

rekoetxean (eliza gibe- lan) pisua salgai. Eguzki- tsua, 2 logela eta bainu- gela, egongela, sukaldea eta balkoi ederra. Aparkatze- ko plaza eta trasteleku- a. Igogailua aparkalekutik sabairaino. ☎628 544929.

DONEZTEBE. Ogiberri gainean, pisua salgai. 2 lo- gela, 2 bainugela, egon- gela, sukaldea eta traste- lekua. 36m²ko terraza bi- kaina, oso eguzkitsua. De- na hegoaldera. Prezio ber- rria. ☎656 770373.

DONEZTEBE. 2 logela- ko pisu berritua salgai. Berogailuarekin. 15 m²ko trasteleku. ☎630 160353.

IGANTZI. 70 m²ko pisu berria salgai, 2 logela, bai- nugela, kalfakzioa, ma- rra garajea eta trastele- kua. Oso argitsua. 180.000 euro. ☎670 218613.

ELIZONDO. Balda medi- kuaren plazan, 50 m²ko apartamentua salgai. Ge- la bat, egongela, sukalde eta jangela, komun bat eta trasteleku. Arras eguzkitsua eta igogailua- rekin. Mobleztatua saldu daiteke. 121.200 euro. ☎626 389226.

BURLATA. 80m²ko pisua salgai. Altuera, argitasu- na eta bista ederrak. 3 lo- gela, bainugela, sukaldea

eta egongela. Berritua. Eskola baten ondoan eta trafikorik gabeko karrikan. 180.000 euro negoziaga- rriak. ☎667 454917.

NARBARTE. Lakoizkie- tako enparantzan 87 m²ko pisua salgai, 90.000 eu- rotan. Oso egoera one- an. Pisu guztia berritua. Egongela, sukaldea eta despentsa, bainugela, balkoia eta trasteleku. ☎948 592018.

ETXALAR. Lizaietako pa- rajean zaharberritzeko borda salgai, lur eremua- rekin. ☎661 121540.

BERA. 34 m²ko atikoa sal-

gai. Arrazoizko prezioan. Leihoeekin eta altuera haundikoa. ☎650 981950.

ETXEBIZITZAK**errentan emateko**

ELIZONDO. Logela bate- ko apartamentua erren- tan emateko, igogailu, ga- rajee plaza eta trasteleku- arekin. ☎650 095167.

BERA. Itzea karrikan, 3 logelako pisua errentan emateko. Eguzkitsua. Igo- gailuarekin. Garaje plaza- rekin. 500 euro hilabete- an. ☎669 954135.

BERA. Kanttonberri karri- kan pisua errentan emate- ko. Sukaldea eta egonge- la lurreko suarekin, 3 loge- la, bainugela eta trastele- kua. Igogailua. Egoera ona. ☎652 700200/615 733468.

ETXALAR. Etxebizitza errentan emateko. ☎948 635137.

LESAKA. Bittiria kalean mobleztutako pisua errentan emateko, lehen- biziko solairuan. 4 loge- la, 2 bainugela, egonge- la eta sukaldea. Oso eguz- kitsua. ☎606 781082.

DANTXARINEA. Landa- ko etxea errentan emate- ko. Sukaldea, 3 logela, bainugela konpletua, be- rogailua, beheko sua eta 30m²ko terraza. Aukeran, 50 m²ko garajea itxia eta 90m²ko kamarotea. ☎659 849570.

ETXEBIZITZAK**errentan hartu**

Inguruan **etxea** edo ba-

HARIBIZTI

PISUAK • GANBARAK • GARAJEAK
LOKALAK

Informazioa eta salmenta
607 946 785 - 948 109 818

BELURRA (Hondaketa) eta (Guztiz berria) 31.

www.inguruetan.com

3.100 Bilerak

BASERRIA

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(urtarrilaren 20tik 27ra bitarteko prezioak)

**ZERRIKIA**

Zerrikumea
(19 kilo): 45,00 € (=)

Zerri gizena
1,161 € kilo. (+0,034)

Zerramak:
0,490€ Kg/bizirik. (+0,030)

**BEHIKIA**

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal
Extra 4,43 (-0,06)
1.koa 4,13 (-0,06)
2.koa 3,89 (-0,06)
Urruxak: €/kg. Kanal
Extra 4,49 (-0,06)
1.koa 4,21 (-0,06)
2.koa 4,11 (-0,06)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen du- ten aretzeenak dira.
Aretze ttikiak
(15 egun ingurukoak):
Aretze mestizoak:
urruxak 100,00 (=)
idixkoak 200,00 (+10,00)

Aretze nabarrak:
urruxak 110,00 (=)
idixkoak 120,00 (=)
Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 2,91/3,01
Zaldi-behorrak: 1,81/2,01
Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 5,80/6,20
8-10 kilokoak: 4,60/4,80

serria errentan hartuko nuke. ☎626 149164.

ZERBITZUAK
zurgindegia



LOKALAK/GARAJEAK
errentan eman

LESKA. Albistur karrikan, lur azpiko garajea errentan emateko. ☎618 962937.

LURRAK/ORUBEAK
salgai

SUNBILLA. 440m²ko lur eremu urbanizatua salgai, 220 m²ko familia barriketo etxebizitza erakitzekeo baimenarekin, argindarra, ura, gasa, ur zikinaren sarea, geoteknikoa eta proiektua. Guztira 66.000 euro. ☎ 616 289492. nabaz@hotmail.es.

LANA
eskariak

Emakume batek asteburuetan ostalaritzan zerbitzu extrak eginen lituzke. Euskara eta frantseza dakizkiena. Zerbitzari moduan esperientzia duena. ☎679 210910.

Neska tituluduna ile-apaindegiren batean lan egiteko prest, edo haurrak zaintzen. ☎607 750553.

Emakume batek adineko jendea zainduko luke interna moduan. ☎667 230372.

BAZTAN. Irakasle titulua duen neska bat Lehen Hezkuntzako klase partikularrak emateko prest dago, baita haurrak zaintzeko ere. Behar izanez gero, haurrak eskolatik jaso edo eramateko autoa badu. ☎687 012790.
BAZTAN ETA INGU-

RUA. Irakasle titulua duen neska bat klase partikularrak emateko prest dago, baita haurrak zaintzeko ere. ☎678 309025.

Neska gazte batek zerbitzaten, etxeak garbitzen edo adinekoak zaintzen lan eginen luke. ☎948 510665/695 716894.

LANA
eskaintzak

BERA. Etxeko lanak egiteko andre euskaldun bat behar da, astean behin, hiru orduz. ☎619 432396.

ANIMALIAK
salgai

Ahuntz enanoa salgai. ☎618 562173.

4 asto eme eder salgai, euskal arrazakoak. ☎690 181644.

ANIMALIAK
erosi

Ahate arra erosiko nuke. ☎948 580231.

Ahari buru motza, gorria eta gaztea erosi nahi da. ☎948 634095 (deitu ilunabarretan).

ANIMALIAK
oparitu

Katakumeak oparitzeko. ☎948 580231.

MOTORRAK
tailerrak



DENETARIK
salerosketak

ORONOZ. Egurra xehe-tua salgai. Pagoa eta harritza. Etxera eramaten da. ☎676 242520.

Haritz amerikar eta ge-rezi landareak salgai.

☎948 450888 (deitu eguerdietan eta arratsaldetan).

LEITZA. Plato dutxa berria salgai. Fiora etxekoa eta Silex materialekoa. Neurria 160x65 eta 4 cm-ko altuera. Txuria. Prezioa: 450 euro. ☎650 217127.



ELIZONDO. Gitarra amplifikadorea 50 W balbulatarkoa salgai. Pantaila ere salgai. ☎620 468282.

Sukalde ekonomikoa salgai. Arrunt egoera oinarri. ☎660 081754 (gauetz deitu).

DENETARIK
oparitu

Akaroen kontrako aspiradora/xurgagailua oparitzeko. Urarekin funtzionatzen duena. Alergiakoentzat aproposa. ☎948 580231.




urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,34€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekia; 4) www.ttipi.net bitartez



JAIONE IRIGOIEN arantzarrak urteak beteko ditu martxoaren 5ean. Aunitz urtez eta muxu haundi bat! Hurrengo tragoa zure kontu e!



XABIER VALVERDE LEIZAK otsailaren 19an 4 urte bete ditu. Zorionak familia guztiaren partetik. Muxu eta besarkada asko gure po-txolo. Muaaa.



IRATXE LOIARTE PETRIKORENA igantziarrak otsailaren 19an 8 urte bete ditu. Zorionak etxekoen partetik. Muxu haundi bat.




Goizuetako **NAHIA ETXEBERRIA PERURENAK** 2 urte bete ditu urtarrilaren 20an. Zorionak gure sorgintxoari Azpirotz eta Goizuetako familiaren partetik



OIER SANCHEZ ELUSALT lesakarrak 3 urte beteko ditu martxoaren 7an. Muxu bat gure alxorrenz eta zorionak! Ama, aita eta zure anaia.



Aranoko **MIKEL LEONET AROZENAK** 6 urte bete ditu otsailaren 10ean. Aranoko familia osoaren partetik zorionak eta muxu haundi bat politta!




Legasako **NAIARA MENDIBURU ANDRESENAK** 5 urte beteko ditu otsailaren 27an. Zorionak Legasako familia guztiaren partetik. Muxu eta besarkada haundi bat.



Iruritako **NAROA ELIZANZIN ALZUARTEK** 8 urte beteko ditu otsailaren 24an. Zorionak eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik eta berexiki Julenen partetik.



IZARO ETXEPARE beratarrak 8 urte bete ditu otsailaren 21ean. Zorionak mari sorgin! Muxu haundi bat familia guztiaren partetik.



OIHAN TELLETXEA SEIN igantziarrak 3 urte beteko ditu otsailaren 23an. Zorionak familia guztiaren partetik.



Aribeko **JULENE ELIZONDOK** otsailaren 20an 8 urte bete ditu. Hainberz gustatzen zai-zun elurra ekarri duzu urtebetetzerako. Zorionak Aribeko eta Etxalartik!



Leitzako **JON ARRIZURIETA TELLETXEA** gure mutiko alaiak 10 urte bete ditu otsailaren 12an. Zorionak mattea familia guztiaren partetik, berexiki argazkiko zure arreba Naroan partetik.



IKER JUANIKOTENA CALLEJA elizondarrak 2 urte beteko ditu martxoaren 2an. Zorionak osabak, izeba eta berexiki amatxi, Laura, Oier, Julen eta osaba Fernandoren partetik. Muxu asko denon partetik.




Saldiasako **JOSE LUIS** eta Etxalarko **OIHANEK** 60 eta 2 urte beteko dituzte otsailaren 21ean eta 26an. Zorionak gure ehiztariei familia guztiaren partetik.



ENEITZ BERTIZ APEZTEKXA sunbildarrak urteak bete ditu otsailaren 10ean. Aunitz urtez *Schuster...* Aita, ama, Arantza eta Sunbillako ataubi-amabai eta osaba-izeben partetik, eta Ekaitz eta Aroak 7 paa bidaltzen dizkizute.



UNAI ESKUDERO BALEZTENAK urteak bete ditu otsailaren 18an. Zorionak Josu eta Mirenen partetik.



Sunbillako **EKINE BERTIZ ARIZTEGK** otsailaren 23an 3 urte beteko ditu. Etxalar eta Sunbillako ataxi eta amatxiendako berendu goxoa prestatu e! Muxu



Sunbillako **EKINE BERTIZ ARIZTEGK** otsailaren 23an 3 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu bat atxa eta amaren partetik. Ongi pasa eguna mari saltxera!



Lekunberriko **UXUE ZABALETA ERROK** otsailaren 22an bete du bere lehen urtea. Zorionak eta muxu haundi bat bere familiaren partetik.



Iruñeko **UGUTZ ETXEBERRIA IRIGOIENK** 7 urte beteko ditu otsailaren 24an. Zorionak eta muxuak ataubi, amatxi eta Aimarren partetik.

hemeri agertu nahi duzu?
egin zure erosketa www.ttipi.net
aldizkarian interneten

Zure negozioaren berri mundu guztiak izan dezan

Bezero berriak Berehalako emaitzak

AUKERA PAREGABEA

PACK egin eta banatu

- Diseinu profesionala
- Esku-orri pertsonalizatuak
- Koloretan inprimatuak
- Banaketa masiboa zure nahi duzun herrietan

854€*

2 ALDITAN INTERESIK GABE

427 € x 2 aldizkara

***2012/03/31 bitarte balio du**

***BEZa sartu gabe**

EGUNA GUAI

948 635 458
publi@ttipi.net

PACK PREMIUM | EGIN eta BANATI
Diseinatu, inprimatu eta 10.000 atzetara banatzen
BAZTAN BESTICARANA MALENERA BERTZARRAK

PACK PLUS | EGIN eta BANATI
Diseinatu, inprimatu eta 3.400 atzetara banatzen
Adibidez **BAZTAN**

(194,50 € x 2 aldizkara) **389 €**

PACK BERRA | EGIN eta BANATI
Diseinatu, inprimatu eta 1.000 atzetara banatzen
Adibidez **BERA**

(99,50 € x 2 aldizkara) **199 €**



TTIPI TXARTELArekin BETI IRABAZTEN DA!

559. ALEKO IRABAZLEA

**DESKONTUAK | ZOZKETAK
ALDIZKARIA MUSUTRUK**
Eskatu zurea 948 63 54 58 telefonoan

- * AQUARIUM 2 SARRERA
Miren Iñurza Aguirre Barasoain | ZAMATZEA
- * ELKAN LIBURUA
Nerea Iñigo Irujo | Pello Larrañaga Aguirre Aguirre | LESAKA
- * ONIRIART KAMISETA
Mireia Juaristi Iturrigarai | AMARU
- * LANKU HAINBESTE, HAIN GUTXI CDK
Joaquín Sainza de Calvo | ELIZKORRO
- * TTIPI GASKIA
Borja Matorranga Elizondo | HIRAKAZA



2 LIBURU
Baizabal argitaletxea
www.baizabal.com



AQUARIUM 2 SARRERA
Donostiako Aquarium-a
www.aquariumss.com



PUNPALAN CD + DVD
Urtxinbu eskola
www.urtxinbu.org



MARTIKO LOTEA
Martiko
www.martiko.com



KAMISETA BAT
Onddo tx punto
www.onddo.com



MENDE BATEAN ALDIARRIAK LIBURUA + M C TXORRITA DVDK
Lanku argitaletxea
www.lanku.com

DESKONTUAK

Agara
%5 kirol artikuluak

Amaia
%5 kirol artikuluak
%5 kirol artikuluak %10 kirol artikuluak

ALTZURI
%5 etxe-irabazteak

BERAUTO
%5 erretabotak

bixkiak
%10ko deskontua

OTSAILAK
25

JOSEINA DJ + GOGOS

01:00 - 9€ eta kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

MARTXOAK
3

DJ AK + LUR DJOTAK

01:00 - 02:00 DOHAINIK
02:00etatik aintzina 9€ eta kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

MARTXOAK
10

ZE ESATEK! + LUZ DE PUTAS

00:00 - 7€ Aurretik 10€ Bertan
Salmenta puntuak: Antxitorea eta Txokoto (Bilbo) - El Infernito Guitar Shop (Iruña) - Atxaspi (Lesaka)

MARTXOAK
17

CHUCHIN IBAÑEZ

+ DJ ALKAPE + LUR DJOTAK

00:30 - 9€ eta kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

MARTXOAK
24

OIHAN VEGA DJ + GOGOS

01:00 - 9€ eta kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

Lur

www.lurazondo.com



garagardotegia

Ostiral: larribata eta jaiegoneko bezberetan irekia
[[[RESERBATAK: TEL. 945264445]]]